



INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

EBAZPENA, 2025eko irailaren 15ekoa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Pasaiaiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspenaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2025eko maiatzaren 16an, Pasaiaiko Udalak Pasaiaiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari, hala baitago xedatuta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean.

Eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu zuen: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskineko formularioa.

Ingurumen-organoak bete egin du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan jasotako kontsulta-izapidea, zeina 2025eko ekainaren 13an jarri baitzen abian. Eraitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Pasaiaiko Udalari.

Era berean, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren webgunean, interesdun orok aukera izan zezan ingurumenaren arloan egokitzen jotzen zituen oharrek egiteko.

Indarreko legeriak txostenak jasotzeko ezartzen duen epea amaituta, eta jasotako txostenak aztertu ondoren, egiaztatu da ingurumen-organoak nahikoa irizpen-elementu dituela ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua araberan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da ingurumenean efektu adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarria sustatzeko.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta eduki beharko dute Administrazio publiko batek hartutako II.A eranskinean zerrendatutako planek eta programek, bai horien aldaketek eta berrikuspenek, eta horiek egitea lege- edo erregelamendu-xedapen batek edo Gobernu Kontseiluaren akordio batek eskatzen badu, baldin eta etorkizunean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen badute eta aipatutako eranskinaren 6. apartatuan jasotako gaietako bati buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua ezartzen du plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasiko dela ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztuz, kontsulta egin ondoren ukitutako Administrazio publikoei eta pertsona interesdunei.

Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, 18.1 artikuluan, ezartzen du zein dokumentu erantsi behar zaizkion irismen-dokumentuari hasiera emateko eskabideari; eta, abenduaren 9ko

21/2013 Legearen aurka ez doan guztian, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen eta osatu egiten du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharreko edukia.

Azkenik, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazteko, kontuan hartu dira ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari dagokionez abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean jasotako eskakizunak, bai eta erreferentzia-dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari dagokienez urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan, hurrenez hurren, jasotako eskakizunak ere.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Ingurumen-ondorioetarako soil-soilik, formulatzea Pasaia Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (aurrerantzean, Plana edo HAPO) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua, jarraian adierazten diren baldintzetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Pasaia 11,34 km²-ko azalera duen udalerririk bat da, Gipuzkoako lurralde historikoari dagokiona eta Donostialdea-Bidasoa Beherea eremu funtzionalean dagoena. Pasaia udalerririk Plangintzako Arau Subsidiarioak 1996ko ekainaren 11n onartu eta 1996ko abuztuaren 13an argitaratu ziren; arau horien bidez arautzen da udalerririk plangintza orokorra. Beharrezkoa da arau horien berrikuspena egitea, bai denbora igaro delako eta bai legeriara egokitu behar direlako, aldaketak gertatu baitira hirigintzako, lurraldeko eta sektoreko araudietan.

Plan Orokorren helburua da udalerririk dituen arazoei modu bateratuan erantzuna ematea: natura-ingurunea, etxebizitza, jarduera ekonomikoak, komunikazio-sistema, espazio libreak eta ekipamendua, mugikortasun alternatiboa, azpiegiturak eta abar.

Hasierako dokumentu estrategikoak Plan berriaren antolamendu-estrategia deskribatzen du, zeina hiri-berroneratzean eta -birdentsifikatzean oinarritzen baita. Horrela, Plan berriaren asmoa da, batez ere, eraikin-hunaren birgaitzea, hiri-berroneratzea eta -berritzea eta birdentsifikatzea. Lurzoru naturalaren gainean hedadura berriak egiteko aukerak oso txikiak dira, eta gauzatzen oso konplikatuak. Horregatik, Plan berriaren lan-eremu nagusiak hauek izango dira: lehendik dagoen hiriaren bilbea, eraikitzen ari den hiria eta indarrean dauden arau subsidiarioek planifikatutako hiria. Bizitegi-garapen berriak, jarduera ekonomikoak, espazio libreak, komunikazio-sistemak eta mugikortasuna planteatzen dira, lurzoru urbanizaezinaren kategorizazio-proposamenarekin batera.

Jarraian, Planaren aurrerakinean planteatutako proposamenak laburbiltzen dira. Kontuan hartu behar da oraingoz behin-behinekoa dela.

1) Antolamendu-ereduan sartzeko bizitegi-jarduketan proposamena:

1.1) HAPOaren bizitegi-ahalmenari dagokionez:

Aintzat hartu da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (aurrerantzean, LAG) metodo arruntaren bidez kalkulaturako agertokia (900 etxebizitza), nahiz eta gaitu egiten duen Donostialdeko Lurralde Plan Partzialak

(aurrerantzean, LPP) ezarritakoa (727 etxebizitza). Beraz, ezin izango dira garatu proposatutako alternatiba guztiak.

1.2) Hiria birgaitzeko, berroneratzeko eta berritzeko jarduketak:

Hiria berroneratzeko jarduketak. Plan Orokorraren aurrerakineko antolamendu-ereduan, area hauek sartzen dira:

- Poblado, Salinas eta Andonaegi: 45.912 m²-ko azalera. Eraikin-ehuna eta espazio publikoa berroneratzeko eta birgaitzeko jarduketan bidez esku hartzeko proposatutako berroneratze-eremuak dira.
- San Roke kaleko etxebizitzak: 468 m²-ko azalera, Pasai Donibanen kokatua. Lehendik dauden etxebizitzak ordezteko eta berrantolatzeko proposamena.

1.3) Lehendik dagoen hiria birdentsifikatzeko jarduketak:

Bi jarduketa hartu behar dira kontuan:

- Jada eraikita dagoen ehunaren aprobetxamendu handiagoa: birdentsifikazio-jarduketak bultzatzea eta sustatzea, etxebizitzak bikoiztuz edo orain beste erabilera batzuetara bideratuta dauden espazio eraikiak okupatuz.
- Eraikigarritasuna areagotzea lehendik eraikita dauden lurzatietan edo orubeetan alde aurretik gauzatutakoaren gainean. Proposatzen da irizpide hau hartzea: Plan Orokorrek zehazki mugatu ditzala jarduketak, baita haietan sartutako edo haiei atxikitako zuzkidura-sistema ere. Hala ere, Plan Orokorrek jarduketa berriak sortzeko bide bat gaitu ahal izango du, Plan Orokorra idaztean aurreikusi edo detektatu ez diren egoerak aurreikusteko.

Aurrerakinak adierazten ditu Plan Orokorrek azter ditzakeen 37 kasu, Donibane, Antxo eta Trintxerpe auzoetarako zuzkidura-jarduketak mugatzeko. Detektatutako kasuek, zuzkidura-jarduketatzat hartzeko lehen premisa gisa, altuerako eraikigarritasuna areagotzeari erantzuten diote. Badira beste inguruabar batzuk ere, hala nola lerrokadura atzeraeman eta doitzea, orubeak eraikitzekeo epetik kanpo eraikitzea, erabilera aldatzea edo eraiki gabeko espazio pribatua aprobetxatzea. Plan Orokorrek beste batzuk ere adierazi ahal izango ditu, egiten den azterketa xehatuan oinarrituta detektatzen direnean.

1.4) Hiri-bilbearen akabera-jarduketak:

Proposatzen da hiri-bilbea osatzea akaberaren zain dauden eremuak eta espazioak antolatuz.

- Indarrean dagoen plangintzak antolatutako eremuak: baliozko alternatiba gisa hartzen da arau subsidiarioetatik eratorritako gaur egun indarrean dagoen antolamendua, gauzatzeko edo amaitzeko zain dauden eremu hauetan.
 - A.U. 3.02.1 Luzuriaga unitatea: 13.287 m²-ko azalera, Pasai Antxon kokatua. 73 etxebizitza aurreikusten dira, baina eraikigarritasun tertziarioko jarduketa ere planteatzen da hainbat solairutan eta 3 sototan (guztira 16.750 m²).
- Indarrean dagoen plangintzak eta proposamen berriek antolatutako esparruak berrikustea: eremuen parametroak eta baldintzak berrikusi dira.
 - 2.02.4 Estrataldea unitatea berrikusteko proposamena: 13.621 m²-ko azalera, Pasai San Pedron kokatua. Eraikigarritasuna eta etxebizitza kopurua handitzea, etxebizitzen tamaina murriztuz, eraikinaren altuera handituz eta azken solairua atiko bihurtuz. 29 etxebizitza gehitzea proposatzen da; beraz, etxebizitzak 94 izango dira guztira. Malda handiak ditu, iparralderantz areagotzen direnak (% 10etik % 100era).
 - AU 2.04.03 Izarra unitatea berrikusteko proposamena: 2.688 m²-ko azalera, Pasai San Pedron kokatua. Eraikigarritasuna eta etxebizitza kopurua areagotzea, eraikinaren altuera handituz. 4 etxebizitza gehitzea proposatzen da; beraz, etxebizitzak 28 izango lirateke guztira. Zona asfaltatu bat du, autoentzat aparkaleku gisa balio duena, bai eta landaredia ere. Maldarik handienak hego-mendebaldean daude (% 30-50).

- AU 2.05.04 Borda Enea unitatea berrikusteko proposamena: 476 m²-ko azalera, Trintxerpen kokatua. Eraikigarritasuna areagotzea eta eraikinari bi solairu eranstea proposatzen da. 4 etxebizitza gehitzea proposatzen da (BOE araubidean); beraz, 14 etxebizitza izango lirateke guztira.
- 2.12.02 Bidasoa Goia sektorea berrikusteko proposamena: 19.954 m²-ko azalera, Trintxerpen kokatua. Sektorea partzialki urbanizatuta dago, eta hasieran aurreikusitako familia bakarreko 26 etxeetatik 6 eraiki dira. Hutsik dauden lurzatieta eraikigarritasuna eta etxebizitza kopurua handitzea proposatzen da. Zehazki, 34 etxebizitza gehitzea proposatzen da; beraz, 60 etxebizitza izango lirateke guztira –horietatik 6 eraikita daude jada–. Maldak handiak dira, oro har % 30-50 bitartekoak, eta ipar-ekialdean eta mendebaldean zenbait puntutan gaintu egiten dira balio horiek. Puntualki, isurketa-fokuak daude.

1.5) Garapen berrietarako jarduketak

Honako egoera hauek hartu dira kontuan garapen berriztat hartu daitezkeen eremu jakin batzuk gauzatzeko, izan indarrean dagoen plangintzatik eratorriak edo proposamen berriak:

- Indarrean dagoen plangintzak antolatutako eremuak:
 - 2.09.02 Azkuene Goia unitatea: onartzen da gauzatzeko zain dagoen 7.348 m²-ko eremu honetan indarrean dagoen antolamendua garatzea, eta 40 etxebizitza proposatzen dira bertan.
- Indarrean dagoen plangintzak eta proposamen berriek antolatutako eremuen berrikuspena
 - 2.12.01 Larrabide Azpi sektorea: 27.125 m²-ko azalera. Sektore honetan, 20 etxebizitza eraikitze zain daude, eta 42 etxebizitza gehitzea aurreikusten da. Guztira 62 etxebizitza izango lirateke (46 libre, 16 babestu). Ingurumen-dokumentuaren arabera, oso malda handiak ditu, % 30etik gorakoak.
 - 3.02.2 «Papin» unitatea. Ha: 9.126 m²-ko azalera. 20 etxebizitza eraikitze zain daude, eta 28ko gehitzea aurreikusten da. Guztira 48 etxebizitza izango lirateke (24 libre, 24 babestu). Eremu honetan 3.500 m² jarduera tertziario daude aurreikusita. Donostiarekin bateragarri egiteko plan bat egiteko aukera aztertuko da, Molinao erreka birnaturalizazioa eta konexioaren hobekuntza analizatuz.

Aurrerakin-dokumentuan aipatzen dira azkenean proposatzen den antolamendu-ereduan sartzeko interesgarriak diren jarduketak. Dena den, azkenean onartuko den eredu planaren izapidetzearen fase aurreratuagoetan zehaztuko da. Erantsitako taulan, laburbilduta daude bizitegi-antolamenduaren eredu sartzeko proposatzen diren alternatibak. 539 etxebizitza aurreikusten dira; beraz, ez da gaintzen Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) ezarritako gehieneko bizitegi-kuantifikazioa (727 etxebizitza). Kalkulu horretan ez dira kontuan hartu zuzkidura-jarduketan ondorioz sortutako etxebizitzak.

2) Antolamendu-ereduan sartzeko jarduera ekonomikoko eremuen proposamena

2.1) Hiria berroneratzeko eremuak:

- La Herrera: 53.076 m²-ko azalera. Jarduera ekonomikora bideratutako lurzoru hau jada antolatuta dago Pasaiako Portuko zerbitzugunearen Antolamenduko Plan Bereziaren berrikuspene-dokumentuan. Helburua da hiriaren eta ekonomiaren aldetik balio erantsi handia izango duen jarduera ekonomikoko eremu bat sortzea, ondoko udalerrietan dauden garapen-area estrategikoen eskaintza osatuko duena.

Plan Orokorrak planteatzen du La Herrera jarduera ekonomiko aurreratuera bideratzea eta horietan espezializatzea; horregatik, birplanteatu egiten du industriari eta logistikan oinarritutako profil funtzionala, orain proposatutakoa.

2.2) Birgaitze-eremuak:

- Pavinsa eremua Sanmarkobidean (Pasai Antxo): 5.253 m²-ko azalera. Antolamendu-ereduaren barruan eremu hori mantentzea proposatzen da. Eraikinak eta instalazioek birgaitzeko, mantentzeko eta hobetzeko esku-hartzeak behar dituzte. Eraikinak aprobetxamendu handiagoa

izan lezake, bertan jarduera ekonomiko berriak ezartzeko; hori Plan Orokorrean hori ahalbidetu beharko da. Hasierako dokumentuaren arabera, Molinao errekaen naturaltasun baxuko zati baten mugakide da.

2.3) Hiri-bilbearen akabera-jarduketak:

- A.U. 3.02.1 Luzuriaga unitatea. 629 m²-ko azalera. Indarrean dagoen antolamenduak 6.500 m²-ko eraikigarritasun-erreserba aurreikusten du jarduera tertziarioetarako, orotara 13.286 m²-ko azalera hartzen duen bizitegi-eremuaren barruan. Proposatzen da antolamendu hori mantentzea eta gaur egun indarrean dauden baldintzetan gauzatzea. Gaur egun, azalera guztia aparkaleku gisa erabiltzen da, eta Molinao ibilguaren ondoan dago.

2.4) Garapen berrietarako jarduketak:

- A.U. 3.02.2 Papin unitatea: 3.500 m²-ko azalera. Antolamendu-ereduan sartzeko alternatiba gisa, proposatzen da lurzoru- edo eraikigarritasun-erreserba bat programatzea jarduera ekonomiko komertzialeko eta tertziarioko erabileretarako, gutxienez 2.000 m²-ko bizitegi-erakinean integratu beharrekoa. Eraikigarritasun hori bizitegi-erakinean kokatu ahal izango da, edo eraikin horretatik kanpo.

3) **Espazio libreak:**

56.155 m² mugatu dira sistema orokor izaera duten espazio libreetarako, 6 eremu desberdinetan banatuta. Hauek dira espazio libreen sistema orokortzat jotzen diren espazioak –hala ere, ondorengo dokumentuetan beraztertu eta berregokitu egin daitezke–:

Kodea	Eremua	Azalera (m ²)
EL-01	AIU Pablo Enea	2.038
EL-02	AIU Araneder	5.119
EL-03	Azkuene Goia parkea	31.944
EL-04	AIU Antxo Norte eta AIU Molinao	14.591
EL-05	AIU Bordaundi	1.480
EL-06	AIU Arrandegia	983
Guztira		56.155

Bestalde, libre gisa kalifikatutako espazio batzuk daude Portuko Plan Berezia. Portuko Plan Berezia libre gisa kalifikatutako espazioak udalerriko espazio libre publikoen sareko espaziotzat hartzen dira, eta Plan Orokor berriaren proposamenean txertatzen dira. Zehazki, Plan Berezi horrek espazio libreen 33.607 m² mugatzen ditu hiri-lurzoruan –Arrandegian (16.613 m²) eta La Herreran (16.994 m²) banatuta–, eta 33.894 m² espazio libre kalifikatzen ditu lurzoru urbanizaezinean –horietatik 1.373 m² Ondartxon eta 32.521 m² Bokalean–. Ondartxoko eremuan igerileku natural batzuk jartzeko proposamena dago.

Hasierako dokumentuak adierazten du 27.689 m²-ko defizita dagoela espazio libreetarako gutxienezko zuzkidura-estandarrei dagokienez, baita biztanle kopuruari aplikatutako estandarra kontuan hartuta ere. Plan Orokorrak, azkenean ezarriko den antolamenduarekin koordinatuta, ordeztu, doitu eta justifikatu egin beharko du zehaztapen hori.

4) **Komunikazio-sistema**

4.1) **Aparkalekuak:** alternatiba gisa proposatzen da aparkaleku berriak kokatu ahal izatea Esnabide kalea 10ean, Gudari plazan eta Biteri plazan, baina HAPOaren fase honetan ez da bat ere hautatu.

4.2) **Mugikortasun alternatiboa: Bidegorriak:** Oinezkoentzako eta bizikletarientzako proposamen berria Antxon barrera, eta gauzatzeke dauden bizikleta-bideen tarteak Trintxerpe/San Pedron eta Donibanen. Zati loteslea La Herreran.

Antolamendu-ereduaren barruan dago, halaber, badia osoaren inguruan eta uretatik ahalik eta gertuen pasatzen den oinezkoentzako eta bizikletarientzako ibilbide jarraitu bat ixtea. Plan Orokorrak proiektu hori zehazteko beharrezkoa den administrazioarteko koordinazioa proposatuko du.

4.3) Hiria berroneratzeko jarduketa ETSren linearen trenbide-trazadurari dagokionez, Antxo auzotik igarotzean. Aurreikusten da topoaren zubibidea kentzea Antxo auzoan eta egungo geltokian; horrek esan nahi du geltoki berri bat eraikiko dela, Gure Zumardiaren azpian lurperatuta.

- Manuel Azurmendi eremuko espazio librea birmoldatzea: proposatzen da zubibidea kentzean liberatutako ibilgu-espazioa estaltzea eta pasabide-eremu bakar bat sortzea. Eremu hori oinezkoen mugikortasunaren eta bizikidetzaren irizpideen arabera tratatzea aurreikusten da. Zubibidearen alde bakoitzean, pasatzeko plataformak gaitu dira, Molinaoren ibilguaren bi ertzak lotzeko. Zubibidea kentzeak aukera ematen du ibai-parkea handitzeko.
- Trenbide-trazaduratik askatutako espazioa birmoldatzea: zubibidea kentzean, espazio libre berri bat gehituko zaio hiri-bilbeari. Askatutako espazioa ez denez oso zabala, aurreikusten da batik bat bidegintzari lotuta egotea. Bide hori oinezkoentzat izatea proposatzen da.
- Biteri plaza berregituratzea: egungo tren-geltokiaren eraikina eta egitura kenduta, Biteri plaza ireki egingo da iparraldetik. Horrek aukera emango du plazaren eta ondoko kaleen eremua berregituratzeko eta zentraltasun-gune interesgarri bat sortzeko.

4.4) Gure Zumardian lurrazpiko trazadura berria eta metro-geltokia: Antxo auzoa zeharkatzen duen metroaren trenbidearen egungo azpiegituraren ordeztu, Gure Zumarditik igaroko den lurpeko beste bat ezarriko da. Plan Orokorrak antolamendu-planoetan jasoko ditu haren trazadura eta eraginak.

5) Lurzoru urbanizaezina

HAPOk antolamendu-kategoria hauek proposatzen ditu lurzoru urbanizaezinerako:

- Babes berezia:
 - Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE), Jaizkibel eta Ulia. Natura 2000 Sareko guneak kudeatzeko, HAPOk dagozkion kudeaketa-planetara igorriko du.
 - Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak: 4040* *Erica vagans* espeziearen kostaldeko txilardi lehorrak atlantikoak eta 6210* Belardi lehorrak erdinaturalak eta kare-substratuen gaineko sastraka-faziesak, orkidea garrantzitsuekin.
 - Hezeguneak (III. taldea/Hezeguneen LPS): Jaizkibelgo hezeguneak.
 - Geologia Intereseko Lekuak (GIL).
 - Zuhaitz autoktonoen orbanak.
- Ingurumen-hobekuntza
- Basoa
- Nekazaritza-abeltzaintza eta landazabala: Trantsizioko landa-eremua
- Azaleko uren babesa

Bestalde, HAPOk baldintza gainjarri hauek hartzen ditu kontuan:

- Arrisku naturalak eta klima-aldaketa:
 - Akuiferoen kutsadurari dagokionez kalteberak diren areak
 - Arrisku geologikoak (mazela ezegonkorak, higadura-arriskua duten areak)
 - Uholde-eremuak
- Azpiegitura berdea:
 - Beren ingurumen-balioengatik babestutako guneak (Natura 2000 sarea: Jaizkibel eta Ulia KBE)
 - Intereseko naturaguneak (LAGetako natura-intereseko eremuak eta Naturagune garrantzitsuen katalogo irekia)
 - Igarobide ekologikoak (nukleo-guneak eta indargetze-eremuak)
 - Sare hidrografikoa (hezeguneak eta ur-korronteak)
 - Biodibertsitate-erreserbak (Jaizkibel eta Ulia)

- Tarte urdina (Oiartzun)
- Gipuzkoako igarobide ekologikoak (Funtzionaltasun Ekologikorako Intereseko Zona)
- Batasunaren intereseko habitatak
- Paisaia babesteko eremuak (natura-interes katalogatuko gunea, ikuseremu katalogatuak, itsasoaren eragin-paisaia, paisaia-mugarriak, paisaia berezien eta apartekoen inbentarioa).
- Beste baldintzatzaile gainjarri batzuk:
 - Ibilbide interesgarriak (Donejakue bidea, GR-121, Gipuzkoako bizikleta-bideen LPSa)
 - Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak
 - Onura publikoko mendiak
 - Gorabehera akustikoen areak
 - Ibaiak eta errekek (osagai hidrauliko eta urbanistikoa)
 - Kostaldea
 - Arkeologia-ondarea

Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, Plana garatzeko tresnek barnean hartzen dituzte hiri-antolamenduko plan bereziak, urbanizazio-proiektuak, birpartzelazio-proiektuak eta xehetasun-azterketak.

Proposatutako alternatibak

Pasaiaiko HAPOaren aurrerakinak bost (5) agertoki desberdin aztertzen ditu HAPOaren bizitegi-ahalmenari dagokionez.

- *1. agertokia: Gainerako agertokiek baino bizitegi-ahalmen txikiagoa.*

LAGek zehaztutako bizitegi-ahalmenaren zenbatespen-irizpideek gehieneko edukieraz hitz egiten dute beti. Alabaina, udalerrriak beti du aukera ahalmen hori bere borondatez ez agortzeko eta etxebizitza kopuru txikiagoa antolatzeko.

- *2. agertokia: Hasierako etxebizitza-parkearen % 10.*

LAGen araudiaren 13. artikuluko 2.e).2.b) puntuak ezartzen du hasierako etxebizitza-parkearen % 10aren baliokidea den bizitegi-ahalmena planteatu ahal izango dela. Gaur egun, 7.801 etxebizitza daude (Eustat, 2019); beraz, 780 etxebizitza dagozkio.

- *3. agertokia: LAGen metodo arruntaren bidez kalkulaturako bizitegi-ahalmena.*

LAGen metodo arruntaren bidez zenbatetsitako bizitegi-ahalmenari erantzuten dio. 900 etxebizitza zenbatu dira.

- *4. agertokia: Indarrean dagoen plangintzan baino bizitegi-ahalmen handiagoa.*

Kasu hau LAGen aplikazio-arauen 13. artikuluko 2.e).6.a) puntuan sartuta dago. Indarrean dagoen Planak 807 etxebizitza antolatzen ditu; ahalmen hori handiagoa da LAGen irizpidea aplikatuz gero zenbatetsitakoa baino.

Ondorioz, HAPO berriak hiri-lurzorurako proposatzen dituen jarduketak, baldin eta birgaitze-, berritze- edo birdentsifikazio-eragiketa gisa justifika badaitezke, zenbaketatik kanpo geratu ahal izango dira ezartzen den bizitegi-kuantifikazioan.

HAPOaren aurrerakin-dokumentuaren hirigintza-memorian hartutako alternatiba 3. agertokiarena da. Hala eta guztiz ere, kalkulaturako ahalmenak gainditu egiten du Donostialdeko LPPak ezarritakoa (727 etxebizitza). Pasaiaiko Plan Orokorraren berrikuspenak ezingo du parametro hori gainditu; beraz, ezin izango dira garatu proposatutako bizitegi-alternatiba guztiak.

2. Aplikatu beharreko ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpideak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du nola ezartzen dituen Planak araudietan, estrategietan eta onarpen orokorreko programetan jasotako ingurumen-helburuak. Hala, Plana egiteko funtsezko oinarri gisa hartuko dira V. Ingurumen Esparru Programa 2030en helburu estrategikoak eta jarduketak-lerroak. Gainera, aplikatu beharko dira planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak, bai eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburu eta printzipioak ere, eta, halaber, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legean zehaztutako helburu eta printzipioak.

Era berean, kontuan hartuko dira Planari aplikatzekoak diren lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko ezarritako irizpide, helburu eta zehaztapenak.

Zehazki, hauek dira Planak bete beharko dituen garapen jasangarriaren printzipioak:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsiboki erabiltzea, eta jada artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, eta irisgarritasuna sustatzea, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren bidez, hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua modu jasangarriagoan erabiliz eta ahalik eta funtzio gehien mantenduz.
- d) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea eta ur-baliabidea modu jasangarrian erabiltzea.
- e) Habitata eta espezieak, natura-ingurunea eta konektagarritasun ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- f) Natura-ondarearen kontserbazioa lehenestea lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren gainetik, baita kultura-ondarearen gainetik ere.
- g) Kapital naturalaren galera saihetsezinak konpentsatzea, konpentsazio hori egiteko behar diren mekanismoak ezarriz.
- h) Natura-ondarea babesteko, kontserbatzeko, kudeatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, hobetzeko eta leheneratzeko eskakizunak politika publiko sektorialetan –bereziki arlo politiko, ekonomiko eta sozialean erabakiak hartzean– integratzea.
- i) Dibertsitate biologikoaren galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- j) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatzea eta hobetzea.
- k) Geologia-ondarea kontserbatzea.
- l) Natura-baliabideen (ura, energia, lurzorua eta materialak) erabilera jasangarria sustatzea.
- m) Energia-aurrezpena, efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- n) Aire garbia bermatzea eta zarata-maila altuen eta argi-kutsaduraren eraginpean dagoen biztanleria murriztea.
- o) Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna murrizten laguntzea, arintze- eta egokitze-neurriak integratuz.
- p) Arrisku naturalak minimizatzea.
- q) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen nahiz lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduketa indartuz.
- r) Zuhurtasun-printzipioa zabaltea natura-ondarean eragina izan dezaketen esku-hartzeetan.

3. Eremu geografikoa eta ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren areak

Pasaiako udalerriak 11,34 km² inguruko azalera du; horietatik % 62,94 landa-lurzorua edo lurzoru urbanizaezina dira. Mugakideak honako hauek dira: iparraldean, Kantauri itsasoa; mendebaldean, Donostia; hegoaldean, Errenteria eta Lezo; eta ekialdean, Hondarribia. Udalerria lau barrutitan banatuta dago: Pasai Donibane, Pasai San Pedro, Pasai Antxo eta Trintxerpe.

Hona hemen natura-ingurunearen eta hiri-habitataren ezaugarri nagusiak:

- Eremua Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoari dagokion Oiartzun ibaiaren Unitate Hidrologikoan (UH) sartuta dago. Zehazki, eremua Oiartzunen gainazaleko ur-masen isurialde-arroko trantsizioko drainatzean kokatzen da nagusiki (ES111O000017). Dena den, Jaizkibel mendiaren magalak Oiartzungo kostaldeko drainatze-arroan kokatzen dira (ES111O000018), eta ipar-ekialdean dagoen eremu txiki bat, berriz, Bidasoa kostako arroan (ES111O000006).

Pasaia sare hidrografiko ia osoa bat dator Oiartzun ibaiaren bokalearekin. Udalerriko ibai nagusia da Oiartzun, eta EAEko Azpiegitura Berdearen Tarte Urdinean sartuta dago. Oiartzun ibaiaren ibaiadar nagusiak Boneda, Moliño eta Xiustegi dira ezkerrean, eta Arrarte eta Alabortza eskuinaldean. Era berean, Jaizkibelen magaletan, urak Kantauri itsasora isurtzen dituzten erreka batzuk daude (ekialdeko mendebaldean): Gaztarrotz, Zabordi, Akerregi, Itzalarri, Zunbillondo, Saratsaga, Iñalurreta eta Putrekabiazpiko. Ibilgu horietako gehienak Oiartzunen arrokoak dira, eta ipar-ekialdean zona txiki bat dago Bidasokoaren barruan.

- EAEko ibaiak eta erreka antolatzeke LPSak Xiustegi ibaiaren ertzen hirigintza-osagaia bakarrik jasotzen du kartografiatuta, eta horiek bat datoz garatutako eremuen ertzeekin.
- Itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoari (ILJP) dagokionez, Pasaia kostaldea osoa, baita badia eta inguruak ere, ILJPren eta haren babes-zortasunaren barruan daude.
- Udalerriko litologiaren ezaugarri nagusiak hauek dira: porositatearen bidezko iragazkortasun handiko ale lodiko arroka detritikoak (hareharriak) eta pitzaduraren bidezko iragazkortasun ertaineko kareharri ezpuruak eta kalkarenitak. Halaber, kareharri tupatsuen, tupa karetsuen eta kalkareniten txandakatzea dago Pasai San Pedron, eta porositatearen bidezko iragazkortasun ertaineko gainazaleko deposituak Pasai Antxon eta Pasai Donibanen.
- Hidrogeologiari dagokionez, Oiartzun ibaiaren ezkerrean dagoen udalerraren zatia Zumaia-Irun lurpeko ur-masaren gainean dago (ES017MSBTES11S000015). Ezkerreko aldean, berriz, Jaizkibelgo lurpeko ur-masaren gainean dago (ES017MSBTES11S000014), zeina Jaizkibel sektorearekin bat datorren eta interes hidrogeologikoko eremu gisa identifikatzen den.
- Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroaren arabera, Jaizkibelgo eremu higroturbosoak identifikatuta daude Jaizkibelen –horiek EAEko Hezeguneen Inbentarioko 3. taldean sartuta daude–, bai eta hiri-hornidurako hartuneak ere. Mantengugaien ekarpenarekiko sentikorrek diren eremuei dagokionez, udalerraren zati handi bat Oiartzun estuarioko eremu sentikorrek hartzeko eremuan dago, eta Oiartzun ibaiaren bokalea mantengugaien ekarpenarekiko sentikorra dela jotzen da. Bestalde, Jaizkibel eta Uli Kontserbazio Bereziko Eremuak (aurrerantzean, KBE) ur-ingurunearekin lotutako habitatak eta espezieak babesteko eremu gisa sartuta daude.
- Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera, udalerrian ez dago «balio estrategiko handiko» lursailik. Lurzoru urbanizazinean, Uliaren eta Jaizkibelen mazelatan «Basoa» kategoria da nagusi.
- Landarediari dagokionez, EUNIS kartografiaren arabera (2019), portu-inguruneetan eta dentsitate handiko herri eta hirietako eraikuntzetan ohikoak diren habitatak daude Oiartzun ibaiaren bokaleatik gertu dagoen eremuan. Eremu horietatik hurbil, lorategiak, baratzeak eta mintegiak daude.

Itsasoaren mugakide den udalerriko iparraldeko kostaldeko habitatari dagokio; bertan, landaredirik gabeko itsaslabarrak eta arroak daude, bai eta angiosperma halofiloak dituzten erlaitz eta itsaslabarrak ere.

Uliako eremuan, zeina bokalearen ezkerrean dagoen, sastrakadiak eta zuhaixkak nagusitzen dira, batik bat otadi atlantikoak (*Ulex europaeus*), kostaldeko txilardia (*Erica vagans*) eta lahardi azidofilo atlantikoak eta elorria (*Rubus gr. Glandulosus*). Erdialdeko zatian, konifero gazteen landaketa-eremu bat dago, ondoan albitz-belardiek eta Mesobromiom larreek osatutako belardiak dituela.

Jaizkibelgo eremuari dagokionez, zeina bokalearen eskuinaldean dagoen, sastrakadiak eta zuhaixkak dira nagusi, bereziki otadi atlantikoak (*Ulex europaeus*) eta kostaldeko txilardia (*Erica vagans*), bai eta belardiak eta belar-habitatak ere. Horietan honako hauek aurkitu daitezke: *Molinia* nagusitzen den belardi heze azidofiloak, bazkarako larreak eta manipulatu gabeko larreak eta *Deschampsia flexuosaren* belardi silizikolak. Jaizkibelen badira baso naturalen eta baso-landaketen orbanak ere, non bereizten diren koniferoen eta hostozabalen landaketa gazte mistoak, *Pinus pinaster* espeziearen landaketak, *Quercus robur* nagusi den baso azidofiloa, *Robinia pseudoacaciaren* landaketak eta amezti eurosiberiarra. Era berean, eremu lohitsu txikiak eta zohikaztegiak daude.

Hasierako dokumentu estrategikoak adierazten du zuhaixkek (iratzedi, txilardi eta otadiek) udalerraren % 45 inguru hartzen dutela; belardi eta larreek % 26 inguru; eta baso autoktonoek (batez ere amezti eta hariztiak) % 6 inguru.

Ingurumen-dokumentuak ohar hauek jasotzen ditu antolamenduaren xede diren eremu batzuetako landarediari dagokionez:

- 2.02.4 Estrataldea unitatea: baratzeak, lahardiak eta hainbat espezie autoktono nahiz ez-autoktonoetako zuhaitzak daude bertan.
 - AU 2.04.03 Izarra unitatea: hegoaldean, zuhaitzak, belarrak eta zuhaixkak daude, baita espezie inbaditzaileen aleren bat ere (*Cortaderia selloana*).
 - AU 2.05.04 Borda Enea unitatea: hegoaldean kokatutako eraikinaren ondoan, asfaltatu gabeko zona bat du, zuhaitz-oin txiki batzuekin.
 - 2.12.02 Bidasoa Goia: landare nagusiak zuhaixkak dira (zumeak, laharrak eta oteak, batez ere), baina badira landaredi nitrofilo eta erruderala eta zuhaitz-oin gutxi batzuk ere. Espezie inbaditzaileak ere ugaritzen dira (panpa-lezka, besteak beste).
 - 2.12.01 Larrabide Azpi: baratzeak daude nagusiki, eta, neurri txikiagoan, otadiak (mendebaldean) eta belardiak (ekialdean), zeinak orkidearik egonez gero 6210* Batasunaren intereseko lehentasunezko habitat diren; bada zuhaitz-eremu bat ere.
 - A.U. 3.02.2 Papin unitatea: zuhaitz-landaredi autoktonoa (haritzak eta lizarrak, besteak beste) duen eremu txiki bat du. Sektore horretatik igarotzen den Molinao erreka ibaiertzeko landaredia du partzialki.
- Udal-mugartean, Batasunaren intereseko habitat hauek identifikatu dira: 4040* *Erica vagans* espeziearen kostaldeko txilardi lehor atlantikoak; 6210* Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuen gaineko sastraka-faziesak (*Festuco-Brometalia*) (*orkidea nabarmenak dituzten parajeak); 6510 Mendiko sega-belardiak (*Arrhenatherion*); 6410 Kare-, zohikaitz- edo buztin/limo-substratuen gainean moliniak dauzkaten belardiak (*Molinion caeruleae*); 4020* *Erica ciliaris* eta *Erica tetralix* espezieen txilardi heze atlantikoak (*); 9230 *Quercus robur* eta *Quercus pyrenaica* espezieen baso galaiko-portugesak; 6230* *Nardus* formazio belarkarak, espezie ugarikoak, mendialdeko –eta Europa kontinentaleko azpimendialdeetako– silize-substratuen gainean (*); eta 7140 Trantsizio-zohikaztegiak. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, habitat horiek 554,23 hektarea hartzen dituzte; hau da, udal-azaleraren % 51.
- GeoEuskadiko kartografiaren arabera, Jaizkibelen *Drosera intermedia* espeziearen hainbat kontserbazio-eremu daude, zeina Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (EMEK) sartuta dagoen, «galzorian» kategoriarekin.
- Hasierako dokumentu estrategikoak adierazten du, halaber, EMEKen sartutako beste flora-espezie batzuk ere badaudela, berreskuratze- edo kudeaketa-planik ez dutenak: *Carex hostiana*, galzorian; *Armeria euscadiensis* (EAEko espezie endemikoa, Ulian eta Jaizkibelen dagoena), *Hymenophyllum tunbrigense*, *Iris latifolia*, *Koeleria albescens*, *Spiranthes aestivalis*, *Telaranea europaea*, *Vandenboschia speciosa* eta *Woodwardia radicans* egoera kalteberan; *Juncus acutus*, bakana; eta gorostia (*Ilex aquifolium*), interes berezikoa. Gainera, adierazten du ezen, Pasaiaiko Jasangarritasun Diagnostikoaren arabera, kostaldeko zonetan flora aloktono inbaditzaileko espezieen presentzia detektatzen dela, hala nola *Buddleja davidii*, *Baccharis hamilifolia* eta *Phytolacca americana*, bai eta hirigunean ere.
- Faunari dagokionez, udalerrian identifikatu dira, alde batetik, Kostaldea-Ulia-Jaizkibel Abifauna Babesteko Eremua (ABE) (Agindua, 2016ko maiatzaren 6koa, zeinaren bidez arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen diren, eta abifaunaren babes-eremuak argitaratzen; 2016ko maiatzaren 23ko EHAA); eta, bestetik, Interes bereziko eremua eta Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko babes-eremua (Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen Kudeaketa-plan bateratua [2015eko uztailaren 1eko ALHAO, 2015eko ekainaren 6ko BAO]).
- Landarediari dagokionez, EUNIS kartografiaren arabera (2019), portu-inguruneetan eta dentsitate handiko herri eta hirietako eraikuntzetan ohikoak diren habitatak daude Oartzun ibaiaren bokaletik gertu dagoen eremuan. Eremu horietatik hurbil, lorategiak, baratzeak eta mintegiak daude.
- Ingurumen-dokumentuak beste hauek ere aipatzen ditu: bi ornogabe-espezie mehatxatu, kaprikornio handia (*Cerambyx cerdo*) eta kakalardo adarduna (*Lucanus cervus*); bi anfibio-espezie, uhandre palmatua (*Lissotriton helveticus*) eta txantxiku arrunta (*Alytes obstetricans*); narrastien artean, zirauna

(*Anguis fragilis*), Mendebaldeko musker berdea (*Lacerta bilineata*), horma-sugandila (*Podarcis muralis*), sugandila arrea (*Podarcis liolepis*), Hegoaldeko suge leuna (*Coronella sp.*), baita Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*) ere. Ugaztunei dagokienez, hamar espezie daude jasota: basasagua (*Apodemus sylvaticus*), triku arrunta (*Erinaceus europaeus*), lepazuria (*Martes foina*), erbinude arrunta (*Mustela nivalis*), etxeko katua (*Felis catus*), katagorri arrunta (*Sciurus vulgaris*), sator arrunta (*Talpa europaea*), pipistrela txikia (*Pipistrellus pipistrellus*) eta Kuhl pipistrela (*Pipistrellus kuhlii*). Hegaztien artean, hauek nabarmentzen dira: liztorjale eurasiarra (*Pernis apivorus*), mirotz zuri eurasiarra (*Circus cyaneus*), zata arrunta (*Caprimulgus europaeus*), belatz handia (*Falco peregrinus*) eta ekaitz-txori txikia (*Hydrobates pelagicus*).

- Jaizkibelgo kostaldean, «Pasaiake egiturazko labarrak» izeneko geologia-intereseko lekua (GIL) dago, eta Jaizkibelen mendebaldean, Oiartzun ibaiaren bokalearen ondoan, «Jaizkibelgo Eozenoko flyscha Arandoaundia muturrean» GILa dago. Gainera, Jaizkibelen, udalerrriaren ekialdeko mugan, «Labetxuko higadura-formak (Jaizkibel)» eta «Jaizkibelgo ibai-haranak» GILak daude.
- Natura 2000 Sareko guneei dagokienez, Pasaiake udalerrian Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta Uliak KBE (ES2120014) daude.
- Azpiegitura berdea eta igarobide ekologikoak ezartzeari dagokionez, Pasaian lehendik dauden igarobide ekologikoen sareko eremuak dira Jaizkibelgo erdigunea –izen bereko KBEari dagokiona– eta bere indargetze-eremua. LAGetako azpiegitura berdearen barruan (2019), Pasaian kartografiatu dira 17 hezegune, Uliako eta Jaizkibelgo KBEak eta Jaizkibel mendiak, eta Uliako itsaslabarrak funtzio anitzeko natura-intereseko beste gune batzuen parte dira.
- Jaizkibelen, 2.064.1. Onura Publikoko Mendia (OPM) dago.
- Udalerrian hiru ikuseremu daude: Pasaiake, Murgitako eta Jaizkibelgoa. Azken biak EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoaren Katalogoan sartuta daude. Gainera, Jaizkibel mendia natura-intereseko eremu katalogatuetan dago.
- Pasaiake lurzati ugari ditu Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen Inbentarioan sartuta, batez ere industria-jarduerarekin lotuta. Ingurumen-dokumentuaren arabera, 22 ha inguru hartzen dituzte orotara.
- Ingurumen-arriskuei dagokienez, udalerriak higadura-maila oso txikiko eremuak ditu nagusiki. GeoEuskadik ez du udalerriko uholde-arriskuaren kartografiarik. Jaizkibelgo eremuak kalteberatasun handia eta oso handia du akuiferoen kutsadurarekin; udalerriko gainerako leketan, berriz, txikia da kalteberatasuna. Baso-sutearen arriskuari dagokionez, udalerrian arrisku txikia, handia eta oso handia duten eremuak daude, eta Jaizkibelen oso handia da arriskua. Udalerriak ez du arrisku handirik sismikotasunari dagokionez, ez eta arrisku kimikorik ere SEVESO enpresen hurbiltasunagatik edo salgai arriskutsuak errepidez garraiatzeagatik. Udalerrriaren hegoaldeko eremua Madril-Irun trenbidearen eragin-bandaren barruan dago, zeina arrisku ertainekotzat jotzen den salgai arriskutsuen garraioagatik.
- Egoera akustikoa kontuan hartuta, udalerrian dauden zarata-foku nagusiak hauek dira: errepideetako ibilgailuen trafikoa (bereziki GI-636 eta GI-2640 errepideetakoak) eta trenbide-lineak (Madril-Irun ADIF linea eta ETS Donostia-Hendaia totoa), bai eta industria- eta portu-jarduera ere.
- Ingurumen-dokumentuak adierazten du udalerriko puntu batzuetan ez direla betetzen Kalitate Akustikoko Helburuak, 5 eta 10 dB(A)-tan. Zehazki, bizitegi-jarduketak proposatutako eremuen arabera, zarata-mailak honela daude: AU 2.05.04 Borda Enea unitatean, 55-60 dB(A) bitartean; eta 2.12.02 Bidasoa Goia unitatean, eguneko soinu-mailak 50-60 dB(A) bitartean. Jarduera ekonomikoak proposatutako eremuei dagokienez, La Herreran zarata-mailak 55 eta 70 dB(A) artean daude. Maila horiek gainditu egiten dira esposizio handieneko eremuetan (bide- eta trenbide-azpiegituretatik gertuen dauden eremuetan); Pavinsaren eremuan, zarata-mailak 55 dB(A) eta 70 dB(A) bitartekoak dira (errepidetik urrunen dagoen eremuan eta gertuen dagoen eremuan, hurrenez hurren).
- Pasaiake udal-mugarrean kultura-ondareko hainbat elementu daude, bai izaera arkitektonikoa eta bai arkeologikoa dutenak. Gainera, kostaldeko Donejakue bidea igarotzen da bertatik.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Ingurune fisikoan efektu adierazgarriak dituzten jarduketak kokatzeko eremu desegokitzat hartu beharko dira aurreko atalean jasotako ingurumen- eta/edo kultura-balio garrantzitsuak dituzten area guztiak.

Era berean, *a priori* desegokiak izan daitezke hirigintza-garapen berriak uholde-eremuetan, akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun handia edo oso handia duten eremuetan eta/edo kutsadura akustikoak eragindako eremuetan. Dena den, aplikatu beharreko ingurumen-araudia errespetatzen bada eta neurri egokiak hartzen badira, eremu horiek egokiak izan litezke aurreikusitako jarduketaren bat garatzeko.

HAPOk planteatzen dituen proposamenen arabera, eremu batzuk oso gertu daude Moliño, Xiustegi eta Bonedaren ibilguetatik, eta uholde-arriskuko arazoak izan ditzakete. Azterketan, justifikatu beharko da proposatutako antolamenduak bete egiten duela urtarrilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren I. eranskinen 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa. Errege-dekretu horren bidez, demarkazio hidrografiko hauen plan hidrologikoak berrikustea onetsi zen: Kantauri Mendebaldea, Guadalquivir, Ceuta, Melilla, Segura eta Júcar, eta Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko demarkazio hidrografikoen Espainiako aldea.

Lurzoru urbanizaezinari (LUE) dagokionez, Aurrerakinaren proposamena zuzena dela jotzen da, hala kategoriei nola baldintzatzaile gainjarriei dagokienez. Egokia da Ulia eta Jaizkibel KBEak babes berezikotzat jotzea eta baldintzatzaile gainjarriztat jartzea –eremu horietan aplikatzekoa den araudiak haien berariazko tresneta igortzen du–, eta bermatu egiten du eremu horietan intereseko elementuak babestea (flora eta fauna mehatxatua, eta abar).

Bestalde, Planak proposatutako bizitegi-jarduketa batzuk bat datoz lhobek landutako Lurzorua kutsa dezaketan jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurzatiekin; horri gehitzen zaizkio trafikoaren edo hiri-jardueraren ondorioz gatazka akustikoa gertatzen den eremuak.

Lurzorua kutsa dezaketan jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lurzatiei dagozkien jarduketek bete egin beharko dute Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutakoa.

Era berean, eragin akustikoa duten eremuek kutsadura akustikoari buruzko araudia bete beharko dute oro har, eta bereziki EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua. Ezingo da etorkizuneko hirigintza-garapenik gauzatu kanpoko giroan kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan, aipatutako dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe.

Hirigintza-garapen berriak hartzeari begira, lehentasuna eman beharko zaie naturaren, kulturaren eta ingurumen-arriskuaren ikuspegitik garrantzi txikia duten eremuei, hala nola lurzoru antropizatuei eta lurzoru kutsatuei. Gune horiek identifikatzeko, proposatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumenaren eta Obra Hidraulikoen Departamentuaren Gipuzkoako Eremu Degradatuen inbentarioa kontsultatzea (2020ko abendua)¹.

Ingurumen-azterketa estrategikoan, detektatu beharko dira proposamenen garapena eta ingurumenaren zaintza bateratzean arazoak ematen dituzten eremuak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da, ebaluatu ahal izateko haren harrera-ahalmena, arrisku-eremuak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar.

5. Egindako kontsulten erantzunen ingurumen-analisi laburra

Eragindako Administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko izapidea amaitu ondoren, organismo hauen erantzunak jaso dira: Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza eta Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza –biak ala biak Eusko Jaurlaritzakoak–; Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentua; eta Adif.

Hona hemen jasotako txostenetako ingurumen-alderdi nagusiak, laburbilduta:

Natura-ondareari dagokionez

¹ <https://www.gipuzkoa.eus/documents/3767975/24833677/Memoria+II+%28ES%29/c04354c8-bffa-8f79-48c5-37b071c3d451>

Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzaren txostenak adierazten duenez, 2020ko abuztuan egindako txosten batean jasagarritasun-irizpide batzuk eman zizkion Pasaiaiko Udalari, HAPOak bete beharrekoak, bermatu ahal izateko bateragarria izango dela natura-baliabideen zaintzarekin. Halaber, azpimarratzen du beharrezkoa izango dela ingurumen-azterketa estrategikoak (IAE) justifikatzea HAPOak irizpide horiek betetzen dituela, ahal izanez gero honako adierazle hauek erabiliz (adieraziz egungo balioa, arrakasta-irizpidea eta proposatutako plangintza aplikatzeagatik balioaren zenbatespena): habitat naturalek, erdinaturalek eta naturalizatuek okupatutako azaleraren %; udal-plangintzak babestutako azalera (Babes berezia eta Azaleko uren babesa kategoriak); azalera artifizializatuaren ehunekoa azalera osoarekiko; hiri-lurzoruko hektarea bakoitzeko biztanle kopurua; biztanle bakoitzeko azalera artifiziala; hiria eraberritzeko eremuetan eta lurzor urbanizagarrian kokatutako etxebizitza berrien guztizko kopurua; eta garraio-azpiegituren dentsitatea.

A priori, zuzendaritza horren ustez, nahiko neurritzkoa da Aurrerakinean proposatutako lurralde-eredua, mugatuta baitago esku-hartzeak proposatzera dagoeneko halakotzat sailkatuta dauden hiri-eremuetan edo eremu urbanizagarrietan.

Nolanahi ere, komenigarritzat jotzen da proposatutako bizitegi-alternatiba guztien artean lehenasuna ematea jada urbanizatuta dauden lurzoruetako jarduketei (birdentsifikazioa eta abar); hala, oraindik garatzeke dauden eremuak desklasifikatu ere egin ahal izango dira plangintzan.

Hiri-ereduari eta lurzoruaren okupazio-ereduari dagokienez, Aurrerakinean planteatzen diren bizitegi-proposamen eta jarduera ekonomikoen proposamen batzuek bat egiten dute natura-ondarearen ikuspegitik interesgarriak diren elementuekin. IAEk arreta berezia eskaini beharko die honako hauei:

- AU.3.02.2 Papin (19.954 m²): eremu horretan, bizitegi-erabilerak eta erabilera tertziarioak egongo liriteke. Baldintzatzailerik handiena Molinao errekaen presentzia da: neurri batean, ibaiertzeko landaredia du, eta hasierako dokumentu estrategikoak hori birnaturalizatzeko aukera jasotzen du. Eskatzen da HAPOaren ondorengo bertsioetan eta IAEn bertan leheneratze-ekimen honetan aurrera egiteko. Era berean, Papin eremuaren hirigintza-fitxan neurriak jaso beharko liriteke, eremuaren iparraldean dagoen zuhaitzi autoktonoari kalterik egingo ez zaiola bermatzeko.
- 2.12.01 sektorea Larrabide Azpi (27.125 m²): gauzatzeke dauden 20 etxebizitza dituen sektorea; bertan, 42 etxebizitza eranstea proposatzen da. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, baratzeak, otadiak eta belardiak daude bertan, eta oso malda handia du (>% 30). Datu Espazialen Azpiegiturak jasotzen ez badu ere, ortoargazkiaren arabera badirudi zuhaitzak daudela sektoreko ekialdeko eremuan. Beraz, eskatzen da IAEk eremu hori xehetasunez deskriba dezala, hala badagokio prebentzio- (adibidez, antolamenduaren doikuntza), zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak hartzeko. IAEn esparruan ezartzen diren neurriak sektoreko hirigintza-fitxan jaso beharko dira, hura garatzeko baldintzatzaille gisa.
- 2.09.02 Azkuene Goia unitatea (7.348 m²): gauzatzeke dagoen sektorea, non 40 etxebizitza dauden aurreikusita. Mendebaldean harizti azidofilo bat du mugakide; beraz, beharrezkotzat jotzen da sektorearen hirigintza-fitxak zuhaitzi horri kalterik ez eragiteko berariazko neurriak jasotzea.
- 2.12.02 Bidasoa Goia sektorea (19.954 m²): partzialki urbanizatutako sektorea, non maldak oso handiak diren (% 30-50), bereziki ipar-ekialderantz eta mendebalderantz. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, landarediari dagokionez zuhaixkak dira nagusi, eta espezie inbaditzaileak ugaritzen ari dira (*Cortaderia selloana* eta beste batzuk). Datu Espazialen Azpiegiturak jasotzen ez badu ere, ortoargazkiaren arabera badirudi zuhaitzak daudela sektorearen zati handi batean, batez ere mendebaldean; beraz, eskatzen da IAEk landare-estaldura xehetasunez deskriba dezala. Eremu horren azaleraren eta kontserbazio-egoeraren balorazioan oinarrituta, hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak ezarri ahal izango dira, sortutako inpaktuaren larritasunaren arabera.

Bestalde, komeni da eremuaren antolamenduak malda txikieneko zonetan kontzentratzea eraikinak, eta malda handienekoak espazio libreetara bideratzea, horietan landareztatze-lanak eginez, eremuan naturalizazio handiagoa sustatuko duten eta lurzorua hobeto eusten lagunduko duten zuhaitz-espezie eta zuhaixka autoktonoetan oinarrituta.

Azkenik, neurriak hartu beharko dira detektatutako flora inbaditzailea desagerrarazteko eta kontrolatzeko.

IAEren esparruan ezartzen diren neurriak sektorearen hirigintza-fitxan jasoko dira, sektorea garatzeko baldintzatzaile gisa.

- 2.02.4 Estrataldea unitatea (13.621 m²): eremu honek malda handiak ditu, nabarmenagoak iparralderantz, eta bertan zuhaitz-eremu bat dago, espezie aloktonoak eta autoktonoak dituena. Gomendatzen da, ahal den neurrian, eremu hori espazio libre gisa uztea eremuaren antolamenduan, eta bertan landareztatze-jarduketak aurreikustea, zuhaitz eta zuhaixka autoktonoetan oinarrituta, iparraldean kokatutako zuhaiztiekin eta landa-eremuekin trantsizioa eta konektagarritasun ekologikoa erraztuz. IAEren esparruan ezartzen diren neurriak eremua garatzeko baldintzatzaile gisa jasoko dira, eremuaren hirigintza-fitxan.

HAPOaren gainerako proposamenei dagokienez –bereziki, komunikazio-sistemari dagokionez–, IAEk baloratu beharko du haietakoren batek gorabeherarik sortzen duen natura-ondarearen balio-elementuetan, eta, hala bada, neurriak hartuko dira halakoak saihesteko.

Gainera, irizpide orokor gisa, gomendatzen da jarraibide hauek betetzea hiri-eredua definitzeko orduan:

- Lehetasuna emango zaio hirigintza-garapen berriak zuhaitz-masa autoktonorik gabeko edo lehetasunezko habitatik gabeko eremuetan kokatzeari. Masa edo habitat horiek egonez gero, halakoak espazio libre izateari emango zaio lehetasuna.
- Plangintza xehatua garatzean, area leheneratzeko plan bat idatzi eta gauzatu beharko da. Plan hori honako irizpide hauen arabera idatziko da:
 - Ahalegina egingo da zuhaitz eta zuhaixka autoktonoen multzo eta eraketa linealak ezartzeko, baita polinizatzaileak erakarriko dituzten lore-parterreak jartzeko ere; ahal dela, horiek inguruan dagoen landaredia naturalarekin lotuko dira, eta habitat naturalizatu bat birsortuko da.
 - Neurriak hartuko dira obra-fasean intereseko landarediari ez eragiteko (balizak jarriz eta abar).
 - Birlandatu egingo dira obrek aldi baterako eragindako gainazalak eta esku-hartzerik gabe gelditzen diren espazio libreetako eremuak, eremura egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta.
 - Protokolo bat idatziko da prozesu inbaditzaileak eragin ditzaketen landare-espezie aloktonoak (esaterako, *Cortaderia selloana*, *Fallopia japonica*...) kontrolatzeko eta desagerrarazteko.
- Intereseko landaredia kenduz gero –hori behar bezala justifikatu beharko litzateke–, konpentsazio-neurriak hartuko dira, eragindako eremuaren azalera bera edo handiagoa duen lurraldeko/udalerriko beste eremu degradatu bateko ingurumena leheneratzeko. Ezinbestekoa da gertatzen diren kapital naturalaren galerak konpentsatzea.
- Saihestu egingo da detektatzen diren fauna-espezie mehatxatuen interes bereziko eremuei eragitea. Horretarako, garapen berriak kokatzeko aukerak bilatuko dira, eta/edo prebentzio- eta zuzentze-neurriak hartuko dira.
- Edonola ere, garapen berrien proposamenei neurriak jaso beharko dituzte esku-hartzearen paisaia-integratuz, hala nola landare-pantailak jartzea. Lehetasuna emango zaio espezie autoktonoak erabiltzeari eta ohiko lorategi-diseinuetatik aldentzen diren konponbideak baliatzeari, ahalik eta espaziorik naturalizatuenak sortzeko –gomendatzen da kontuan hartzea lhobek argitaratutako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeako eskuliburua*–.

Lurzoru urbanizaezinari (LUE) dagokionez, zuzendaritza horrek uste du Aurrerakinaren proposamena zuzena dela, hala kategoriei nola baldintzatzaile gainjarriei dagokienez. Hala ere, adierazi du ez direla jaso lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagozkion planoak (AE.2.2 serieko antolamendu-planoak), eta, beraz, ez direla eman antolamendu-kategoria bakoitzeko guztizko azalaren datuak. Dena den, geroko faseetan egin ahal izango da analisi hori.

Kontuan hartzeko gaiei dagokienez, zuzendaritza horren ustez beharrezkoa da honako hauek nabarmentzea:

- Babes berezia kategoriari dagokionez, hasiera batean lehentasunezko BIHaK eta zuhaitz autoktonoen orbanak sartu dira bertan, bai eta Hezeguneen LPSko III. taldeko hezegunak ere.

Hezegune horiei dagokienez, aipatu behar da LPSak berak gomendio batzuk jasotzen dituela, udal-plangintzan kontuan hartu daitezzen (Bigarren xedapen gehigarria); komenigarria da horiek kontuan hartzea, Pasaiaiko HAPOan hezegune horiek zehatzago islatzeko.

Lehentasunezko BIHei eta zuhaitz autoktonoen orbanei dagokienez, gogoan izan behar da LAGek adierazten dutela kategoria hori aplikatzen zaiela «*ongi kontserbatutako baso autoktonoei, itsasadar eta estuarioei, egoera onean dauden ibaiguneei, hondartzei, barrualdeko hezeguneei, itsasbaterreko amildegiei, gorenako inguruei edo landaretza berezikoei eta, oro har, ekologiarren, kulturaren, paisaiaren edo horien guztien ikuspegitik baliotsuak diren elementu guztiei*». Zehazki, adierazten dute honako hauek sartuko direla kategoria horretan: a) Funtsezko prozesu ekologikoak mantentzeko zeregin garrantzitsua duten eremuak, hala nola lurzorua babestea edo akuiferoak kargatzea; b) Kontserbazio-egoera onean dauden habitat naturalen laginak, desagertzeko zorian daudenak edo, nazioarteko hitzarmenen edo xedapen espezifikoaren ondorioz, babes berezia behar dutenak; c) Espezie mehatxatu gisa katalogatutako animalia- edo landare-populazioak dauzkaten eremuak, elementu endemikoen kontzentrazio handiak dauzkatenak, edo nazioarteko hitzarmenen edo berariazko xedapenen arabera babes berezia behar duten espezieak dauzkatenak; d) Landa- edo nekazaritza-paisaia harmoniatsuak, edertasun berezikoak edo kultura-balio handikoak; e) Geologia-intereseko lekuak (GIL); f) Beren bitxitasunagatik edo apartekotasunagatik nabarmentzen diren elementu naturalak dauzkaten eremuak, edo interes zientifiko berezia dutenak.

LAGek marjina uzten dute diskrezionaltasunez jokatzeko babes bereziko eremuak identifikatzeko orduan, baina adierazten dute funtsezkoa dela aparteko balioa duten eremuak izatea. Alde horretatik, egokia litzateke udal-mailan baloratzea baso autoktonoaren eta lehentasunezko BIHen presentzia, egiaztatzeko bat datozela LAGek kategoria honetarako ezartzen dutenarekin.

- Itsasertzeko LPSari dagokionez, HAPOak ez du zehazten indarrean dagoen LPSko Babes bereziko eta Ingurumena hobetzeko eremuak espresuki hala jasotzen diren, tresna honen araudiak ezartzen duen bezala. Kasua balitz, gai hori lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan jaso beharko da.

Egokia da Ulia eta Jaizkibel KBEak babes berezikotzat jotzea eta baldintzatzaile gainjarritzat jartzea –eremu horietan aplikatzeko den araudiak haien berariazko tresnetara igortzen du–, eta bermatu egiten du eremu horietan intereseko elementuak babestea (flora eta fauna mehatxatua, eta abar).

Kultura-ondareari dagokionez

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen Zuzendaritzak ohar hauek egiten ditu:

- Hirigintza-katalogoan «oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak» izeneko taldea sartu beharko da, 6/2019 Legearen ondoretarako (14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa [2023ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.]). Gomendatzen da horren barruan sartzea Memorian atal honetan jasota dauden ondasunak: *Euskal Kultura Ondarearen EAeko erregistroan kultura-ondasun gisa aitortzeko eta inskribatzeko proposamena duten elementuak*.

Kontuan izan behar da Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak eta haren aldaketak (14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa) ondasun horiei dagokienez ezartzen dutela automatikoki aplikatuko direla, esku hartzeko araubide gisa, zaharberritze zientifikorako edo zaharberritze kontserbatzailerako irizpideak, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan aurreikusitakoak.

Azkenik, «Udal-babeseko ondasunak» izendapenean bilduta geratuko lirateke «Tokiko babes-mailaren proposamena duten ondasun higiezinak» atalean jasotako elementuak. HAPOaren katalogoan sartzeari begira, gomendagarria da ondasun horietan aplikatzekoak diren esku-hartzeak izatea Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinean («Birgaitzeko esku-hartzeak») jasotako «Zaintzea eta apaintzea» edota «Sendotzea».

Donejakue bideari dagokionez, egiaztatu da Pasaiaiko udal-mugartetik kostaldeko Donejakue bidearen trazaduraren zati bat igarotzen dela. Nahiz eta Aurrerakinaren memoriak jasotzen duen 2/2012 Dekretuan jasotako adierazpena (2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzeko; 2012ko urtarrilaren 27ko EHAA, 19. zk.), ez da ageri hura aldatzen duen 66/2022 Dekretuan.

Komenigarria da HAPOaren ondorengo idazketa-faseetan katalogo osoa sartzea, zerrendekin eta elementu bakoitzaren banakako fitxarekin, bai eta babes partikularrerako araudi bat ere, bat etorriko dena Euskal Kultura Ondarearen Zentroak (EKOZ) 2020ko ekainaren 23an egindako txostenean ezarritako irizpideekin.

- Arkeologia-ondareari dagokionez, Memorian datorren Deklaratutako ustezko zona arkeologikoen zerrendan jasotako ustezko zona arkeologikoak bat datoz Euskal Kultura Ondarearen Zentroan (EKOZ) eskuragarri dagoen informazioarekin.

EKOZek adierazitako elementuak ere zuzen jasota daude Deklaratzeko zain dauden zona arkeologikoen zerrendan. Elementu horiei dagokienez, deklarazioa jasotzeko zain dauden bitartean, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 65. artikuluan xedatutakoa aplikatzea gomendatzen da. Bestalde, katalogoaren bidez babestuko diren zonak izanik, izendapen hori ez da egokia.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren iritiz, aurkeztutako ingurumen-azterketa udalerrian dauden kultura-ondareko ondasunen zerrenda bat egitera mugatzen da, eta ez du aztertzen planeko proposamenek bertan izango duten eragina. Beraz, uste dugu azterketa ez dela nahikoa eta osatu egin beharko dela.

Pasaiaiko HAPOaren Aurrerakin-dokumentuari dagokionez, Aurrerakinak ez du jasotzen udalerraren kultura-ondarea islatzen duen planorik, eta Memoriak kultura-ondareko elementuen zerrenda bat jasotzen du, hainbat taldetan banatuta, baina talde horiek ez datoz bat Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzeko den azaroaren 30eko 14/2023 Legearen 8. artikuluko babes-mailekin. Beraz, Pasaiaiko HAPOaren Kultura Ondarearen Katalogoa egokitu egin beharko da Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzen duen azaroaren 30eko 14/2023 Legean ezarritako lau babes-mailetara: «Babes berezia duten kultura-ondasunak», «Babes ertaina duten kultura-ondasunak», «Oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak» eta, azkenik, «Udal-babeseko kultura-ondasunak».

Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, EAeko lurralde-eremuan dauden eta aldi berean Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen babespean kultura-ondasuntzat jo diren ondasun higarri eta higiezin guztiak babes bereziko kultura-ondaretzat joko dira, baldin eta Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erregistroan sartu badira, eta babes ertaineko kultura-ondasuntzat, berriz, Euskal Kultura Ondasunaren EAeko Inbentario Orokorrean sartu badira.

Gainera, komeni da HAPOak berak kultura-ondarearen plano orokor bat izatea, besteak beste honako hauek jasotzeko:

- Donejakue bidea. Donejakue bidearen trazadura eta bertako ondarea babesteko elementuak urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuan daude jasota. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzen den Donejakue bidearen zatia Kultura Ondasun gisa kalifikatzen da, Monumentu Multzoren kategoriarekin. Maiatzaren 24ko 66/2022 Dekretuak aldatua, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatu izendatzen duen Dekretua.
- Jaizkibel draga (297/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Jaizkibel draga kultura-ondasuntzat kalifikatzen duena, Monumentu-kategoriarekin, eta bere babes-araubidea ezartzen duena).
- Ustezko zona arkeologikoak (Ebazpena, 1997ko irailaren 17koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, zeinaren bidez iragartzen baitiren 1997ko irailaren 11ko ebazpenak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat udalerritako ustezko zona arkeologikoak adierazten dituztenak. 1997ko urriaren 30eko EHAA, 208. zk.).
- Gaztarrotz haitzuloa (Agindua, 2015eko azaroaren 2koa, Hezkuntza, Hizkuntza-politika eta Kulturako sailburuarena, zeinaren bidez II. eranskinean zerrendatzen diren Gipuzkoako Lurralde Historikoko

haitzuloetako aztarnategiak Kultura-ondasun gisa sartzen diren, Monumentu Multzo kategoriarekin, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian).

- Jaizkibelgo estazio megalitikoak (137/2003 Dekretua, ekainaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden eta I. eranskinean zerrendatu diren Estazio Megalitikoak, Monumentu Multzo izendapenez, kultura-ondasun deklaratzeko eta babes-araudia ezartzeko dena).
- Gainerako elementu babestuak –modu orientatiboan, Ondarera, Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren GIS bisorera, igortzen da–.
- Idatzi honekin batera, bidaltzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuko Ondare Historiko-Artistikoaren Zerbitzuko datu-baseko elementuen zerrenda orientatiboa, ondare arkitektoniko eta arkeologikoko elementuen azterketan kontuan hartu dadin. Bertan, elementu bakoitzaren deskribapena, ondare-mota eta babes-maila daude jasota.

HAPoaren katalogoa prestatzean, gomendatzen da elementu bakoitzaren banakako fitxa egitea, non zehaztuko diren elementuaren kokapena, deskribapen orokorra, ondare-intereseko balioak, argazkiak, babes-arabidea eta kontserbazio-egoera.

Ondare Historiko-Artistikoaren Zerbitzuak adierazi du prest dagoela arlo horretan lankidetzan aritzeko edo informazioa partekatzeko.

Arriskuei dagokienez

- ADIFek adierazi du estatuaren eskumeneko tren-azpiegituretarako erreferentziazko legeria honako hauek osatzen dutela: azaroaren 17ko 37/2003 Legeak, Zaratarenak, eta urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak, zeinaren bidez 37/2003 Legea garatzen den zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez. Hortaz, legedi hori kontuan hartu beharko da trenbidearen aldamenen aurreikusitako garapen eta eraikin berrien plangintzan.

Aurrekoari kalterik egin gabe, bete egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 42. artikuluko zehaztapenak. Artikulu horrek ezartzen du etorkizuneko hirigintza-garapen batean trenbidetik 75 metro baino gutxiagora eraikin bat egitea aurreikusten baldin bada, dardara-mailen ebaluazioa jasoko duen inpaktu akustikoaren azterketa bat egin beharko dela, kalitate akustikoko helburuak betetzen direla egiaztatzeko eta, behar izanez gero, dagozkion zuzenketa-neurriak ezartzeko.

ADIFek adierazi du HAPo izapidetzeko hurrengo faseetan kontuan hartu beharko direla trenbide-ardatz handien zarata-mapa estrategikoak, Pasaiako udalerriko trenbide-tartea aztertu baita jada UME 02_01 ZUMARRAGA LEZO/ERRENTERIA txostenean. Horrenbestez, inpaktu akustikoa ebaluatzeko eta aztertzeko, kontuan hartu behar da IV. faseari dagokion Zarata-mapa Estrategikoen azken bertsioa, CNOSSOS-EU metodoa jarraitu behar da, eta trenbide-zaratarako erabili behar da *Adif eta Adif-AV azpiegituretan trenbide-zirkulazioek sortutako zarataren modelizazioan CNOSSOS-EU metodoa aplikatzeko gida*.

Era berean, adierazi du etorkizuneko hirigintza-garapenen sustatzaileak izango direla etorkizuneko eraikinetan baldintza horiek betetzearen arduradunak; beraz, tren-azpiegiturek eragin badiezaieke, zarataren eta bibrazioen azterketa akustiko xehea egin beharko dute, legeria betetzen dela justifikatzeko. Azterketa horretan, ebaluatuko da etxebizitzetako, espazio komunetako eta lorategietako inpaktu akustikoa, eta kanpoaldean nahiz barrualdean kalitate akustikoko helburuak betetzeko neurriak aztertu eta diseinatuko dira.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean zehaztutako edukia izango du gutxienez, eta osatu beharko da planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin.

Aurrekoarekin bat etorritik, garatzen diren atalek eskema metodologiko honi erantzun beharko diote:

1. Proposatutako Planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren karakterizazioa
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak kontuan hartuta, uste da Azterketak alderdi hauetan sakondu behar duela, jarraian adierazten diren zabaltasun- eta xehetasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Plana osatzen duten alderdiak deskribatuko dira, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana etorkizunean gauzatzean egingo diren ekintzetatik zeinek izan ditzaketen eragin kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia atal hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak Planak bete nahi dituen helburu zehatzen laburpen txiki bat izango du. Gainera, labur adieraziko da Plana lantzean nola hartu diren kontuan ebazpen honen 2. atalean jasotako ingurumen-babeseko helburuak eta jasagarritasun-printzipio eta -irizpideak.

b. Hierarkikoki Planaren gainetik dauden plan edo programak identifikatuko dira. Gaingiroki deskribatuko dira Planaren xede edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapen eta aurreikuspenak, baita aplikatzekoak diren ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Erreferentzia adieraziko da hierarkikoki Planaren gainetik dauden plan edo programen onespren-egintzari eta datari dagokienez, eta zehaztuko da plan edo programa horien ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin den ala ez.

c. Planaz gaindiko plan hierarkikoen ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritako irizpideak eta zehaztapenak jasoko dira, hala badagokio, bai eta ebaluatu beharreko Planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak diren beste garapen-tresna batzuen ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritako irizpideak eta zehaztapenak ere. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia jasoko da, eta adieraziko dira adierazpen horiek argitaratu diren aldizkari ofiziala eta haiek kontsultatzeko lekura eramaten duen esteka.

d. Adieraziko dira Planarekin hierarkia-harremanik ez duten arau, plan eta programetan ingurumena babesteko jasotako irizpide, helburu eta zehaztapenak, hainbat eremutakoak (Europar Batasuna, estatua, autonomia-erkidegoa edo tokia), aplikatzekoak direnean.

Bereziki, eta besteak beste, honako plan eta araudi hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Donostialdea–Bidasoa Behereko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.

- EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala.
- Itsasbazerreko Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza-ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa Sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (izapidetzen).
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027); bereziki, uholde-eremuei buruzko zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Uholde-arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027).
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- Agindua, 2016ko maiatzaren 6koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta abifaunaren babes-eremuak, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira, argitaratzen (2016ko maiatzaren 23ko EHAA).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana (2015eko uztailaren 1eko ALHAO, 2015eko ekainaren 24ko BAO).

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismena zehatz-mehatz definitu behar da. Azterketak Plana aplikatzearen ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatua egingo du, Planak eragiten duen eremuan indarrean dagoen hirigintza-antolamenduari dagokionez sartzen dituen aldaketei edo xehetasunei lotuta, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri adierazgarriak eragin baditzaizkete, eremua garatzeko beharrezkoak diren jarduketak guztiak kontuan hartuta.

Alderaketa bat aurkeztu beharko da, onartutako zehaztapenen eta Berrikuspen honetan aurreikusitako zehaztapenen artekoa. Xehetasunez deskribatuko da indarrean dagoen plangintzan definitutako egungo egoera, eta alderatu egingo da Planak jasotzen dituen proposamen berriekin: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea, erabilerak aldatzea eta abar.

Indarrean dagoen plangintzako antolamendua aldatzen zaien eremu/sektore guztietarako, datu hauek aurkeztu beharko dira:

- Kokapena planoan.
- Azalera.
- Indarrean dagoen plangintzaren eta Planak sartutako proposamen berrien arteko alderaketa: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea edo beste ekintza batzuk.

- Nabarmen kaltetu daitezkeen eremuen ingurumen-ezaugarriak.

Informazio guztia argi eta garbi identifikatu beharko da; horretarako, jasotako informaziorako egokia den eskalako kartografia baliatuko da. Lan teknikoa errazteko, *shape* formatuan entregatu beharko da kartografia, ebazpen honen 6.1.2 atalaren f. epigrafean ezarritako jarraibideak betez. Informazio kartografikoa eskuliburu honetan adierazitako moduan entregatuko da: *Dokumentuak aurkezteko gida. Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura izapidetzea* (EJ, 2022). Fitxategiei ipintzen zaien izenak fitxategiek jasotzen duten informazioa identifikatzeko modukoa izan beharko du.

Informazio hori argi eta garbi identifikatu beharko da; horretarako, jasotako informaziorako egokia den eskalako kartografia baliatzea gomendatzen da.

Aurrerakinean proposatutako lurralde-eredua nahiko neurritzkoa da, mugatzen baita dagoeneko halakotzat sailkatuta dauden hiri-eremuetan edo eremu urbanizagarrietan esku-hartzeak proposatzera. Nolanahi ere, funtsezkoa da IAEk behar bezala justifikatzea HAPOaren proposamena egokitzen dela Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzak 2020ko abuztuan egindako txostenean gomendatutako jasangarritasun-irizpideetara. Horretarako, ahal izanez gero, adierazle hauek erabiliko dira –zehaztuz egungo balioa, arrakasta-irizpidea eta proposatutako plangintza aplikatzearen ondoriozko balioaren zenbatespena–:

- Habitat naturalek, erdinaturelek eta naturalizatuak okupatutako azaleraren ehunekoa;
- Udal-plangintzak babestutako azalera (Babes berezia eta Azaleko uren babesa kategoriak);
- Azalera artifizializatuaren ehunekoa azalera osoarekiko;
- Hiri-lurzoruko hektarea bakoitzeko biztanle-kopurua;
- Biztanle bakoitzeko azalera artifiziala;
- Hiria eraberritzeko eremuetan eta lurzoru urbanizagarrian kokatutako etxebizitza berrien guztizko kopurua;
- Garraio-azpiegituren dentsitatea.

Lurzoru urbanizaezinari (LUE) dagokionez, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzak uste du Aurrerakinaren proposamena zuzena dela bai kategoriei, bai gainjarritako baldintzatzaileei dagokienez. IAE n sartu beharko dira lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagozkion planoak, antolamendu-kategoria bakoitzaren guztizko azalera jasotzen dituztela. Gainera, kontuan hartu beharko dira alderdi hauek:

- Babes berezia kategoriari dagokionez, hasiera batean lehentasunezko BIHa eta zuhaitz autoktonoen orbanak sartu dira bertan, bai eta Hezeguneen LPSko III. taldeko hezegunak ere.

Hezegune horiei dagokienez, aipatu behar da LPSak berak gomendio batzuk jasotzen dituela, udal-plangintzan kontuan hartu daitezkeen (Bigarren xedapen gehigarria); komenigarria da horiek kontuan hartzea, Pasaiaiko HAPOan hezegune horiek zehatzago islatzeko.

Lehentasunezko BIHei eta bertako zuhaitz-orbanei dagokienez, gogoan izan behar da LAGek adierazten dutela kategoria hori balio aparta duten eremuei aplikatzen zaiela. Alde horretatik, egokia litzateke udal mailan baloratzea baso autoktonoaren eta lehentasunezko BIHen presentzia, egiaztatzeko bat datozela LAGek kategoria honetarako ezartzen dutenarekin.

- Itsasertzeko LPSari dagokionez, HAPOak ez du zehazten indarrean dagoen LPSko Babes bereziko eta Ingurumena hobetzeko eremuak espresuki hala jasotzen diren, tresna honen araudiak ezartzen duen bezala. Kasua balitz, gai hori lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan jaso beharko da.

b. Aurreikuspen bat egingo da Planaren proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektuen eta jardueren izaeraren inguruan.

Azterketak identifikatu egin beharko ditu ingurumen-ebaluazio estrategikoa behar duten ondoko ondoko plan xehatuen bidez garatuko diren eremu edo proposamenak. Era berean, identifikatuko dira Planaren esparruan ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak, eta ezarri beharko dira garapen-baldintzak eta proiektuak garatzean eraginak minimizatzekeo jarraibideak.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planaren ekintzak deskribatu eta lokalizatu egingo dira, bai eta hierarkizatu ere, garrantzi gehien dutenetatik gutxien dutenetara, aintzat hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta natura-baliabideen kontsumoa. Horrela deskribatutako Planeko ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio, eta kode hori erabiliko da Azterketaren hurrengo ataletan erreferentzia egin behar zaionean.

d. Planak onesten denetik aurrera zer garapen izango duen zehaztuko da, adieraziz plangintzaren geroko faseak eta Planaren zehaztapenak jasotzeko tresnak. Era berean, aurreikuspen bat egingo da, aipatutako garapen-tresnak eta/edo -proiektuak ingurumen-ebaluazioaren mende jartzeko aukerari buruzkoa.

e. Kasu guzietan, Plana garatzeko denbora-aurreikuspen bat jasoko da, eta, hala badagokio, aurreko paragrafoan deskribatutako ekintzetarako zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan bildutako informazioa kartografikoki jasoko da, eskala egokian, eta islatuko ditu bai lurraldearen erabilera eta bai ingurumen-efektu adierazgarriak izan ditzaketen Planeko aurreikuspen eta jarduketak. Informazio kartografikoa aurkeztu beharko da, gutxienez alderdi hauek jasoko dituen: proposatutako jarduketa berrien xede diren eremuen mugaketa, jarduketa guztien kokapena eta lurzoru-antolamenduaren kategoriak (baldintza gainjarriak barne, hala badagokio). Kartografia hori entregatu beharko da *pdf* formatuan (georreferentziatuta) eta *shape* formatuan (UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabiliz), berriki-berriki errazteko.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Labur-labur, Plana formulatzeko prozesuan kontuan hartu diren alternatibak deskribatuko dira. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikaren eta ingurumenaren aldetik, eta honako alderdi hauei buruzkoak izan ahalko dira: kokapena, garapen teknikoa, denbora-garapena, kudeaketa, antolamendua, natura-baliabideen erabilera edo beste edozein alderdi. Esku-hartzerik gabeko alternatiba edo 0. alternatiba aztertuko da, zeinaren erreferentzia izango den Planeko proposamenak aplikatu ezean jarduketa-esparruaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta azalduko dira alternatiba bakoitzetik eratorritako Planaren proiektuen eta ekintzen arteko aldeak, konparaketa eginez 6.1.2.b atalean deskribatutako proiektuekin eta 6.1.2.c atalean deskribatutako ekintzekin.

c. Laburpen bat erantsiko da, azalduz zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik hautatu den azkenean proposatutako alternatiba.

Illo horretan, komenigarritzat jotzen da proposatutako bizitegi-alternatiba guztien artean lehentasuna ematea jada urbanizatuta dauden lurzoruetako jarduketei (birdentsifikazioa eta abar); hala, oraindik garatzeke dauden eremuak desklasifikatu ere egin ahal izango dira plangintzan.

Hiri-ereduari eta lurzoruaren okupazio-ereduari dagokienez, Aurrerakinean planteatzen diren bizitegi-proposamen eta jarduera ekonomikoen proposamen batzuek bat egiten dute natura-ondarearen ikuspegitik interesgarriak diren elementuekin. IAEk arreta berezia eskaini beharko die honako hauei:

- AU.3.02.2 Papin (19.954 m²): eremu horretan, bizitegi-erabilerak eta erabilera tertziarioak egongo lirake. Baldintzatzailerik handiena Molinao errekaen presentzia da: neurri batean, ibaiertzeko landaredia du, eta hasierako dokumentu estrategikoak hori birnaturalizatzeko aukera jasotzen du. Eskatzen da HAPOaren ondorengo bertsioetan eta IAEn bertan leheneratze-ekimen honetan aurrera egiteko. Era berean, Papin eremuaren hirigintza-fitxan neurriak jaso beharko lirake, eremuaren iparraldean dagoen zuhaitzi autoktonoari kalterik egingo ez zaiola bermatzeko.
- 2.12.01 sektorea Larrabide Azpi (27.125 m²): gauzatzeke dauden 20 etxebizitza dituen sektorea; bertan, 42 etxebizitza eranstea proposatzen da. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, baratzeak, otadiak eta belardiak daude bertan, eta oso malda handia du (>% 30). Datu Espazialen Azpiegiturak jasotzen ez badu ere, ortoargazkiaren arabera badirudi zuhaitzak daudela sektoreko ekialdeko eremuan; beraz, eskatzen da IAEk eremu hori xehetasunez deskriba dezala, hala badagokio prebentzio- (adibidez,

antolamenduaren doikuntza), zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak hartzeko. IAEn esparruan ezartzen diren neurriak sektoreko hirigintza-fitxan jaso beharko dira, hura garatzeko baldintzatzaile gisa.

- 2.09.02 Azkuene Goia unitatea (7.348 m²): gauzatzeke dagoen sektorea, non 40 etxebizitza dauden aurreikusita. Mendebaldean harizti azidofilo bat du mugakide; beraz, beharrezkotzat jotzen da sektorearen hirigintza-fitxak zuhaitzi horri kalterik ez eragiteko berariazko neurriak jasotzea.
- 2.12.02 Bidasoa Goia sektorea (19.954 m²): partzialki urbanizatutako sektorea, non maldak oso handiak diren (% 30-50), bereziki ipar-ekialderantz eta mendebalderantz. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, landare-diari dagokionez zuhaixkak dira nagusi, eta espezie inbaditzaileak ugaritzen ari dira (*Cortaderia selloana* eta beste batzuk). Datu Espazialen Azpiegiturak jasotzen ez badu ere, ortoargazkiaren arabera badirudi zuhaitzak daudela sektorearen zati handi batean, batez ere mendebaldean; beraz, eskatzen da IAEk landare-estaldura xehetasunez deskriba dezala. Ere horren azaleraren eta kontserbazio-egoeraren balorazioan oinarrituta, hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak ezarri ahal izango dira, sortutako inpaktuaren larritasunaren arabera.

Bestalde, komeni da eremuaren antolamenduak malda txikieneko zonetan kontzentratzea eraikinak, eta malda handienekoak espazio libreetara bideratzea, horietan landareztatze-lanak eginez, eremuan naturalizazio handiagoa sustatuko duten eta lurzorua hobeto eusten lagunduko duten zuhaitz-espezie eta zuhaixka autoktonoetan oinarrituta.

Azkenik, neurriak hartu beharko dira detektatutako flora inbaditzailea desagerrarazteko eta kontrolatzeko.

IAEn esparruan ezartzen diren neurriak sektorearen hirigintza-fitxan jasoko dira, sektorea garatzeko baldintzatzaile gisa.

- 2.02.4 Estrataldea unitatea (13.621 m²): eremu honek malda handiak ditu, nabarmenagoak iparralderantz, eta bertan zuhaitz-eremu bat dago, espezie aloktonoak eta autoktonoak dituena. Gomendatzen da, ahal den neurrian, eremu hori espazio libre gisa uztea eremuaren antolamenduan, eta bertan landareztatze-jarduketak aurreikustea, zuhaitz eta zuhaixka autoktonoetan oinarrituta, iparraldean kokatutako zuhaitziekin eta landa-eremuekin trantsizioa eta konektagarritasun ekologikoa erraztuz. IAEn esparruan ezartzen diren neurriak eremua garatzeko baldintzatzaile gisa jasoko dira, eremuaren hirigintza-fitxan.

HAPOn gainerako proposamenei dagokienez –bereziki, komunikazio-sistemari dagokionez–, IAEk baloratu beharko du haietakoren batek gorabeherarik sortzen duen natura-ondarearen balio-elementuetan, eta, hala bada, neurriak hartuko dira halakoak saihesteko.

Ingurumen-azterketa estrategikoak behar bezala justifikatuko ditu HAPOk planteatzen dituen proposamenak, aintzat hartuta Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko 9/2021 Legeak ezarritako printzipioak.

d. Aztertutako alternatibak modu kartografikoan jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren egoeraren karakterizazioa

Azterketak deskribatu egin beharko ditu Planak eragindako eremuan ingurumenak gaur egun duen egoeraren alderdi garrantzitsuak. Karakterizazio horretan, elementu abiotikoak eta biotikoak jasoko dira, bai elementu mota bakoitzaren ikuspegi sektorialetik, bai haien interakzioen ikuspegitik, eta ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emango da bertan.

Planaren eraginpeko eremutat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horretatik hurbilen dagoen ingurunea ere, Planeko ekintzek ingurumen-efektu nabarmenak izan ditzaketen eremuetara mugatuta.

Ingurunearen kalitatearen alderdi desberdinei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarritzen denean, emandako datuen iturria identifikatuko da, adieraziz izenburua, urtea, egilea eta, hala badagokio, lana osorik kontsultatu ahal izateko lekuaren esteka.

Azterketak ingurunearen aldagaiak islatzen dituzten eskala egokiko planoak jasoko ditu.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Gutxienez ingurumen-alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupe mota, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak daudela adieraziko da, hala nola ibai-ibilguak, fauna- eta flora-espezie mehatxatuen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, landaredia, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, flora eta fauna autoktonoak, geologia-intereseko lekuak, eta abar. Presente dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira (interes-maila, kalteberatasuna, gaur egungo presio eta mehatxuak), Plana gauzatzean areagotu egin daitezkeenak.

Ildo horretan, xehetasunez deskribatu beharko da zein landarediri eragingo dion aintzat hartutako antolamendu-alternatibak, batez ere zuhaitz-masa autoktonoak eta intereseko landaredia dauden eremuetan. Landaretza-mota bakoitzerako, zehaztuko dira haren azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionaltasun ekologikoa. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Kontuan hartuko dira paisaia-intereseko guneak, hala nola mugari bisualak eta pertzepzioaren ikuspuntutik interesgarriak izan daitezkeen beste elementu batzuk. Hala badagokio, paisaia-katalogoak erabiliko dira, halakorik egonez gero.

d. Ingurumen-arrisku eta -arazoak. Arriskuei dagokionez bildu diren datu guztiak emango dira, hala nola lurpeko uren kutsadurarekiko kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketaren ondoriozko arriskuak eta aipagarria den beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez detektatutako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak identifikatuko dira, bai eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak ere, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena. HAPOan sartu behar da azkenean aukeratutako hirigintza-garapenaren proposamenarekin bat datozen baliabide hidrikoen eskaeren zenbatespena.

Planaren eremuko egoera akustikoaren gaur egungo gatazka akustikoak detektatzeko eta etorkizunekoak aurreikusteko, informazio hau emango da:

- Zonakatze-mapa: Planaren esparruko eremu akustikoen mugaketa, baita mugakideena eta trantsizio-eremuena ere, hala badagokio.
- Soinu-iturrien analisisa
- KAHak betetzen direla egiaztatzea
- Azpiegituren zortasun akustikoak (hala badagokio)

Bestalde, HAPOaren berrikuspenak proposatzen du, ebazpen honetan adierazitako eremu batzuen sailkapena aldatzeaz gain, eremuen antolamendu xehatua egitea. Espedientean inpaktu akustikoaren azterketa bat jaso beharko da. Azterketa horretan, zarata-mapak eta ebaluazio akustikoak egingo dira, aurreikusi ahal izateko etorkizunean hirigintza-garapena izango duten eremu akustikoen inpaktu akustiko globala. Inpaktu akustikoaren azterketa horrek Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan zehaztutako alderdiak jaso beharko ditu.

Hala dagokionean, ingurumen-arrisku eta -arazo horien eraginpean bereziki egon daitezkeen eremuak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Detektatutako elementu bakoitzeko, bere garrantzia, kalteberatasuna, instrumentua eta babes-maila adieraziko dira. Halaber, kultura-ondasuna kalifikatzen eta babesten duen arau-xedapenaren erreferentzia zehaztuko da.

Pasaiaiko HAPOa egokitu beharko da Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzen duen azaroaren 30eko 14/2023 Legean ezarritako babes-mailetara eta baldintzatzaileetara.

Pasaiaiko HAPOaren Kultura Ondarearen Katalogoak kontuan hartu beharko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ezarritako irizpideak, eta egokitu beharko da Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzen duen azaroaren 30eko 14/2023 Legean ezarritako lau babes-mailetara: «Babes berezia duten kultura-ondasunak», «Babes ertaina duten kultura-ondasunak», «Oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak» eta, azkenik, «Udal-babeseko kultura-ondasunak».

Egokitzat jotzen da HAPOak berak kultura-ondarearen plano orokor bat jasotzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak adierazitakoari jarraituz, eta bertan honako hauek jasotzea, besteak beste: Donejakue bidea, Jaizkibel draga, ustezko zona arkeologikoak, Gaztarrotz haitzuloa, Jaizkibelgo estazio megalitikoak eta gainerako elementu babestuak.

HAPOaren katalogoa prestatzean, gomendatzen da elementu bakoitzaren banakako fitxa egitea, non zehaztuko diren elementuaren kokapena, deskribapen orokorra, ondare-intereseko balioak, argazkiak, babes-araubidea eta kontserbazio-egoera.

f. Atal honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk ere jasoko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuaren irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoarekin lotutako beharrak (ura, energia, eta abar), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria, eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko atalean azaldutako deskribapen eta datuetatik abiatuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko eremuan, eta, labur, jasoko dira Planeko jardueren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku nagusiak, ingurumen-ebaluazioaren prozesurako garrantzitsuak direnean. Ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoeretan jarri beharko da arreta, bai eta kaltetuak izateko aukera duten alderdietan ere, kontuan hartuta Planak barne hartzen dituen jarduketetatik ondorioztatuko diren proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketan, detektatu beharko dira proposamenen garapena eta ingurumenaren zaintza bateratzean arazoak ematen dituzten eremuak.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da, ebaluatu ahal izateko haren harrera-ahalmena, arrisku-eremuak eta eremu hauskor edo kalteberak. Atal hori idazteko, kontuan hartuko dira, gutxienez, txosten honen 3. atalean aipatutako ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak eta aplikatzekoak diren araudietan eremu horietarako ezartzen diren mugak.

Kasu honetan, Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatu dezaketen alderdiak hauekin lotutakoak dira: jabari publiko hidraulikoaren babesa, itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoa, kultura-ondarea, uholde-arriskua, lurzoru kutsatuen kudeaketa, kalitate akustikoa, eta landaretza edo fauna interesgarria egotea. Azterketak alderdi horiek guztiak analizatuko ditu.

6.3. Proposatutako Planaren ingurumen-efektuak

a. Atal honetan, identifikatu, karakterizatu eta baloratu egin beharko dira Planeko ekintzek 6.2 atalean deskribatutako ingurumenaren kalitatearen elementuetan izan ditzaketen efektu aurreikusgarriak. Planaren efektuak identifikatu eta karakterizatuko dira Planean aurreikusitako ekintzen eta kaltetuak izan daitezkeen

ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren arteko interakzioak aztertutakoan, baita sortu daitezkeen edo larriagotu eta areagotu daitezkeen ingurumen-arazo eta -arriak aztertu ondoren ere.

Karakterizazioak zehaztu du zer-nolako den efektu mota; hala, honako hauek bereiziko ditu: bigarren mailako efektuak, metatze-efektuak, sinergikoak, epe laburrekoak, ertainekoak eta luzeak, iraunkorrak eta aldi baterakoak.

Azterketaren 6.1.2.c atalean identifikatutako ekintza bakoitzaren ingurumen-efektuak deskribatuko dira, erreferentzia espresua eginez atal horretan ekintzei esleitutako kodeari.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu jarduketa-proposamen berriei eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragiten dituen aldaketei lotutako ekintzen ingurumen-efektuak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketak eta aurreikusitako jarduketak berrien arteko konbinazio-ekintzatik erator litezkeen metatze-efektuak eta sinergikoak.

Hala dagokionean, hainbat ekintza konbinatzean sortuko diren efektuak zehaztu dira. Halaber, modu berezian jasoko dira herritarrengan, gizakien osasunean edo ondasun materialetan ondorio kaltegarri eta garrantzitsuak eragin ditzaketen ingurumen-efektuak.

Planari dagokionez aipatutako efektu bakoitzari kode bat esleituko zaio, eta kode hori erabiliko da efektuari erreferentzia egitea beharrezkoa den Azterketaren hurrengo ataletan.

Besteak beste, eragin hauek ebaluatuko dira bereziki:

- Ibai-ibilguetan eta haien jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremuetan izan dezakeen eragina ebaluatuko da, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da. Bereziki, EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean adierazitakoa bete beharko da, aurreikusitako jarduketek ibaiaren ibilguarekiko gauzatu behar dituzten ubide-atzeratzei dagokienez.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak analizatuko du zer efektu izango dituen Planak uholde-arriak dagokionez, eta behar bezala justifikatuko du indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia betetzen dela erabilerei ezarritako mugei dagokienez fluxu iraunkorreko alderdian eta uholde-arriko zaintza-eremuetan.
- Hondeaketek eta lur-mugimenduek eragindako ondorioak aztertu dira; bereziki, kutsatuta egon daitezkeen lekuak inbentariatuta dituzten eremuetan egiten direnean.
- Era berean, karakterizatu eta baloratuko dira Planak proposatutako antolamenduak eremuan dagoen landaredi autoktonoan dituen efektuak; bereziki, hostozabalen masa autoktonoan eta identifikatutako intereseko landaredian dituenak. Alde horretatik, AU.3.02.2 Papin, .12.01 Larrabide Azpi, 2.09.02 Azkuene Goia, 2.12.02 Bidaso Goia eta 2.02.4 Estrataldea sektoreak azpimarratuko dira.
- Aztertu da Planak zer-nolako eragina izan dezakeen eremuan identifikatutako fauna-talde guztietan, bai zuzenean, bai zeharka, bertako habitatak aldaraztearen ondorioz. Justifikatuko da Planaren eta hegazi nekrofagoak elikatzeko Batasunaren intereseko babes-eremuen arteko bateragarritasuna (2015eko uztailaren 1eko ALHAO, 2015eko ekainaren 24ko BAO), bai eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren bidez izendatutako abifaunarentzako babes-eremuekiko bateragarritasuna ere (2015eko maiatzaren 23ko EHAA, 96. zk.).
- Proposamenak itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoan izango duen eragina aztertu da.
- Azterketak baloratu beharko du proposatutako jarduketak bat datozen tokiko eremuaren konektagarritasun ekologikoa lortzeko helburuarekin, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen arabera. Bereziki, kontuan hartuko da txosten honen 3. apartatuan zehaztu diren eta biodibertsitateko garrantzitsuenak diren naturaguneen (naturagune babestuak, natura-intereseko eremuak, ur-ibilguak, landaredi autoktonoa duten eremuak, etab.) arteko

konektagarritasuna, intereseko lotura-paisaiaren elementuen bidez lotuko direnak, hala nola heskaiak eta ezpondak, zuhaitz autoktonoen oin isolatuak, zuhaitz-lerrokadura sinpleak, ur-puntuak (zubiak, iturburuak, istilak, etab.) eta harrizko hormatxoak.

- Planeko proposamenek kultur-ondarean duten eragina aztertuko da.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertuko du zenbateraino betetzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak (KAH), aurreikusitako erabilerak aintzat hartuta. Egiatzatu beharko da etorkizunean kalitate akustikoko helburuak bete ahal izango direla Planaren antolamendu-eremuan, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan eta hurrengoetan jasotako baldintzetan. Aipatutako dekretuaren 42. artikulua aplikazioari dagokionez, kontuan hartu beharko da trenbidearen presentzia. Ingurumen-dokumentu estrategikoak informazio hau jaso beharko du:
 - Soinu-iturrien azterketa, arauaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Diseinu-alternatiben azterketa, arauaren 39. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Kalitate akustikoko helburuak lortzeko behar diren neurrien definizioa, izapidetzen ari den antolamendu motaren arabera.
 - Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskinaren I. zatiko A taulan ezarritakoaren arabera, kanpoaldean aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak lurretik 2 metroko garaieran neurtuko dira; leihodun fatxaden kanpoko aldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.
- Azterketan azalduko da ea Plana bateragarria den identifikatu diren ukituak izan daitezkeen ondare-intereseko elementuen izendapenetik eratorritako babes-irizpideekin.

b. Identifikatu eta kodetutako efektu bakoitza baloratzeko, besteak beste alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Ektuen garrantzia eta espazio-hedadura.
- Seguruenik eragindako arearen balioa eta kalteberatasuna, honako hauek aintzat hartuta:
 - Naturaren, kulturaren eta paisaiaren aldetik ezaugarri bereziak egotea.
 - Ingurumen-baldintza txarrak egotea eta airean, uretan edo lurzoruan kalitate-estandarrek edo muga-balioak gainditu ahal izatea.
 - Planak zein neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, kuantifikatu egingo dira efektuak, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatutako ingurumen-faktoreen egoeran gertatutako aldaketen datu neurgarrien bidez. Hala badagokio, ziurgabetasun-maila adieraziko da efektu horiek aurreikustean.

c. Era berean, ahal den guztietan, efektuak modu kartografikoan lokalizatuko dira, eta, era berean, ahalegina egingo da gerta daitezkeela aurreikusten den plan edo programaren faseekin lotzeko.

d. Adieraziko da detektatutako efektua eragingo duen ekintzak eskatzen duen Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan sartzea, eta, kasu bakoitzean, eragindako plangintza-tresna azalduko da.

e. Horrela deskribatutako ingurumen-efektuak hierarkizatu egingo dira, haien garrantzi erlatiboa nabarmenduz.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Atal honetan, Azterketaren 6.3 atalean zehaztutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Hartzen diren neurriek bermatu beharko dute ez dela sortuko ingurumen-efektu nabarmenik Planeko ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Helburu hauek izango dituzte: natura-baliabideak babestea, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta detektatutako ingurumen-arazoak hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriak koherenteak izango dira aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatu eta lotuko dira Azterketaren 6.3 atalean identifikatutako eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi den efektu bakoitzari dagokionez.

Bereziki, eta besteak beste, Plana onestearen ondorioz garatzen diren plan edo proiektuetan aplikatuko diren neurri hauek zehaztuko dira:

- Uholde-arriskuari dagokionez, Planak bete beharko du indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia, erabilerei ezarritako mugei dagokienez lurzoru urbanizatuko lehentasunezko fluxu-eremuan eta gainerako uholde-eremuan (43. eta 45. artikulua). Uholde-eremuetan, kontuan hartu beharko dira EAEko Ibai eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialeko E.2 ataleko zehaztapenak.
- Bestalde, bermatuko da betetzen direla bai EAEko Ibai eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean ezarritakoa eta bai dagokion administrazio-hidraulikoaren nahitaezko baimenean jasotako baldintzak.
- Hirigintza-garapen berrietan, minimizatu egin beharko da zoladuraren edo okupazio iragazgaitzaren kantitatea –behar-beharrezkoa den gainazaletara mugatuko da–, eta drainatze jasangarriko sistemak txertatu beharko dira (zoladura iragazkorak, ekaitz-tangak edo -gailuak, etab.), bermatu ahal izateko jariatzearen hazkundea aurreko egoerari dagokion balioarekiko konpentsa daitekeela edo garrantzirik gabea dela. Era berean, sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusi beharko da.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak xehetasun-maila nahikoarekin identifikatuko ditu obren faseko neurriak, lurrazaleko eta lurpeko uren kalitatea murriztea saihesteko, ibai-ibilguak kontuan hartuta.
- Udalerriko eremuak babestera bideratutako neurri espezifikoak, natura-ondarea eta konektagarritasun ekologikoa kontserbatzeko interes berezia dutenak.
- Saihestu egingo da detektatzen diren fauna-espezie mehatxatuen interes-eremuei eragitea; horretarako, garapen berriak kokatzeko aukerak bilatuko dira, eta/edo prebentzio- eta zuzentze-neurriak hartuko dira.
- Lehentasuna emango zaio hirigintza-garapen berriak zuhaitz-masa autoktonorik gabeko edo lehentasunezko habitatik gabeko eremuetan kokatzeari. Masa edo habitat horiek egonez gero, halakoak espazio libre izateari emango zaio lehentasuna.
- Guneen eta eraikinen antolamenduan, kontuan hartuko dira irizpide bioklimatikoak eta energia-efizientziako irizpideak.
- Espazio publikoen diseinuak birnaturalizaziora bideratuta egon beharko du, naturan oinarritutako konponbideen bidez.
- Garapen berrien proposamenek esku-hartzearen paisaia-integraziorako neurriak jaso beharko dituzte: landare-pantailak jartzea eta abar. Lehentasuna emango zaio espezie autoktonoak erabiltzeari eta ohiko lorategi-diseinuetatik aldentzen diren konponbideak baliatzeari, ahalik eta espaziorik naturalizatuena sortzeko –gomendatzen da kontuan hartzea lhobek argitaratutako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua*–.
- Intereseko landaredia kenduz gero –hori behar bezala justifikatu beharko litzateke–, konpentsazio-neurriak hartuko dira, eragindako eremuaren azalera bera edo handiagoa duen

lurraldeko/udalerriko beste eremu degradatu bateko ingurumena leheneratzeko. Ezinbestekoa da gertatzen diren kapital naturalaren galerak konpentsatzea.

- Plangintza xehatuaren garapenak lotuta egon beharko du area leheneratzeko plan bat idaztearekin eta gauzatzearekin. Plan hori honako irizpide hauen arabera idatziko da: landarediarekin eta habitat naturalekin lotzeko irizpideak, intereseko landarediari ez eragitea, espezie autoktonoekin birlandatzea, inbaditzaile aloktonoak ezabatzea eta paisaia-integrazioa. Obra-proiektuek «leheneratze-proiektu» bat izango dute lotuta, eta bertan garatuko dira jarduketak, haiek gauzatzeko behar besteko xehetasun-mailarekin, aurrekontua barne.
- Neurriak ezarriko dira Planaren eremuan dauden lurzoru kutsatuak behar bezala kudeatzeko, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena.
- Neurriak ezarriko dira sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko, arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Ekonomia zirkularreko neurriak sartuko dira, honako hauekin lotuta: landare-lurra obran kudeatzea eta berrerabiltzea, materialen kontsumoaren inpaktua minimizatzea (lurren balantzea/oreka, eta abar), material iraunkor eta birziklagarrien erabilera, bai eta jatorri naturalekoak ere.
- Neurriak ezarriko dira garapenen aurrezkoa eta energia-efizientzia, mugikortasun jasangarria eta energia berriztagarriak bultzatzeko.
- Kalitate akustikoko helburuak lortzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan ezarritakoaren arabera, eremu akustikoak eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta.
- Errepideen eta/edo trenbide-sarearen zortasun-eremuaren barruan dauden eremuetarako, kontuan hartu beharko da urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 30. artikuluan azpiegitura autonomikoen zortasun akustikoko eremuaren efektuei buruz zehaztutakoa.
Trenbide-sarearekin mugakide diren hirigintza-eremu guztietan, trenbide-eragineko eremuetan erabileraren mugak aplikatu behar zaizkienean, indarrean dagoen araudiaren araberrako zaratari buruzko zehaztapenak jaso beharko dira bere arau partikularretan, bai eta trenbidearen eragin-eremuetan obrak egiteko Adifen baimena eduki beharra ere.
- Era berean, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketarekiko eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak. Xede horrekin, lhobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: *Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21 lan-koaderno*a eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua, klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*. Era berean, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legean hirigintza-plangintzari dagokionez adierazitako neurriak bultzatuko dira.
- Azkenik, Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legean ezarritakoari jarraikiz, Plana garatzeko proiektuak diseinatuko dira kontuan hartuz klima-aldaketari aurre egiteko egokitzapen progresiboa eta erresilientzia bultzatzeko beharrezkoak diren neurriak. Adibidez, klima-aldaketara egokitzeko eta «bero-uharte efektua» murrizteko helburuarekin, hiriko klima-babesleku gisa funtzionatuko duten itzalguneak sortuko dira, jarduketak horretarako aukera ematen badu, eta ingurunea naturalizatzeko prozesuak sustatuko dira.

c. Adieraziko da Planaren zein zatitan dauden txertatuta proposatutako neurriak, eta erreferentzia espresua egingo zaio horiek jaso dituen Planaren dokumentu teknikoari.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean plangintzaren ondorengo fase edo etapetan edo Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoa duten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua jasoko da, eta hura gainbegiratzeko ardura duen agente edo pertsona nor den adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, hartan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horiek honako alderdi hauek kontrolatzeko izango dira:

- Planak ingurumenean dituen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo zuzentzeko aurreikusitako neurriak behar bezala inplementatzen direla gainbegiratzeko.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana ezarri aurretik dauden ingurumen-arazoaren bilakaera ere.
- Plana gauzatzeak ingurumenean eragingo dituen ondorioak egiaztatzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak lehenbailehen identifikatzeko, eta horiek saihesteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Prebentzio- eta zuzenketa-neurri gehigarriak hartzeko beharra detektatzea Plana gauzatzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta bat etorriko dira Azterketaren 6.4 atalean jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak Azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, baita kasu bakoitzean datuak biltzeko aldizkakotasunaren eta erabiliko diren metodoen proposamen zehatz bat ere.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatu diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola bete diren Azterketaren 6.1.1 atalean deskribatutako ingurumen-babeserako irizpide, helburu eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zein den Planak etorkizunean ingurumenean ondorio adierazgarriak izateko probabilitate-maila, eta behar bezala argudiatuko da, egiaztatzeko proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero ez dela oso gertagarria ondorio adierazgarri horiek jazotzea eta, beraz, ez dagoela Planaren garatzeko eragozpenik. Ondorio hori oinarritzeko, Azterketaren gainerako ataletan jasotako informazioari buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterketak emandako informazioaren laburpen ez-teknikoa izango du, eta erraz ulertzeko moduan idatziko da ebaluazio-prozesuan garatutako gaien buruzko prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonentzat.

b. Laburpen horrekin batera, beharrezkoa den informazio grafikoa aurkeztu beharko da, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen laguntzeko, edo informazio hori erraz eskuratzeko beharrezkoak diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioaren eta kontsulten izapideak

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, organo substantiboak gutxienez 45 eguneko epean jarriko du jendaurrean Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera.

Era berean, organo substantiboak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa betetzeko, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu diren Administrazio publiko ukituen eta pertsona interesdunen eskura

jarriko ditu, gutxienez, Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter ditzaten. Erakunde hauei egin zaie kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Osasuneko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- URA – Uraren Euskal Agentzia.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Ihobe.
- Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala.
- Mendietako eta Natura Inguruneen Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Kulturako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Bide Azpiegiturretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ADIF.
- Ekologistak Martxan.
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdi-elkartea.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.
- Haritzalde Naturzaleen Elkartea.
- Landarlan Ingurumen Elkartea.
- Áncora, Kultura Ondarea Kontserbatzeko Elkartea.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa bidaliko dio ingurumen-organuari, honako hauek osatua: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak; eta sustatzaileak idatzitako laburpen bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta azterketa hori irismen-dokumentura egokitzea, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskabidea eta dokumentazioa Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren webgunean agertzen diren jarraibideen arabera egin eta aurkeztuko dira. Jarraibideak esteka honetan daude:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estragikokoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidan zehaztutako moduan egin eta aurkeztu beharko da. Gida ingurumen-organoren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. - Ebazpen hau Pasaiaiko Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren webgunean argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 15a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
Nicolas Garcia-Borreguero Uribe.